

# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko martxoaren 4a

21. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

#### Galderak:

- Galdera, Barañain Auditorioa Fundazioaren garapenerako aurreikusten den dirulaguntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer asmo dituen Pío Barojaren museo etnografikoa jartzearen eta haren kokalekuaren inguruan. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, N-121 errepidea hobetzeko lanak iragartzeko panelak hauteskondeak baino astebete lehenago jarri eta lanak bi hilabete beranduago hasi izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, jakiteko ea Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak behar bezalako eta behar adina-ko segurtasun-neurriak hartuak dituen N-232 errepidearen bikoizketaren ondoriozko behin-behineko erreietan. Castejón-Tutera bide-zatian. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, goi mailako antzerki ikasketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nafarroako enpresa publiko guztien zenbait daturi buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, indusketa arkeologikoetarako inbertsio planari eta horrek kultur garapenerako plan berrian izan duen garapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, irakaskuntza itundu pribatuko irakasleen lan egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Enpresa Zientzietako bosgarren maila ikasten ari diren ikasleei beka ez emateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, etxebizitza hutsak alokatzeko poltsari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, jakiteko zein arrazoi direla-eta sartu den Nafarroako Gobernuak webgunean Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenen bilatzaile bat, ebazpenik ez egoteagatik ez dabilena. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, joan den martxoaren 17ko Iruñeko manifestazioaren deialdiak eta haren antolamenduak eta abarrek sorturiko gastuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, “Kirol entitateentzako dirulaguntzak” izeneko aurrekontu kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

- Galdera, Nafarroak SPRIN enpresa publikoarekin guztira duen zorrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, jakiteko zenbat aldiz baliatu den Nafarroako Gobernuak babes ofizialeko etxebizitzan izapidetzean lehenetsunez erosteko eskubideaz. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, enplegu-erregulazioko espedienteak onesteko baldintza objektiboei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Nafarroan automobilen sektorerako arau-esparru bat ezartzeko beharrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak Agoitzen industria proiektu berriak sustatzeko eta/edo instalatzen laguntzeko konpromiso politikoa bere gain hartzeko asmorik duen. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Iruñeko Udaltzaingoaren ibilgailuen eta uniformeen irudi berriari eta hori Nafarroako udaltzaingoan antolaketari buruzko esparru erregelamenduaren araberkoa izateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Gobernuak Nafarroan lurreko telebista digitalaren eskuragarritasuna bultzatzeko hartuko dituen neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, eskariaren kanona izenaz ezagutzen denaren zenbatekoa zehazte aldera Donejakue bideko autobiatik iragaten diren ibilgailuak kontatzeko xedez autobia horretan ezarrita dauden gailuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, eskariaren kanona izenaz ezagutzen dena zehazte aldera ibilgailuen kontaketa egiteko Bideko Autobian jarri diren gailuak ezarrita dauden kilometro puntuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, eskariaren kanona izenaz ezagutzen dena zehazte aldera Bideko Autobiatik iragaten diren ibilgailuak kontatzeko autobia horretan ezarrita dauden gailuen informazioa lortzeko Nafarroako Gobernuak erabiltzen dituen giza eta gauza-baliabideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, eskariaren kanona izenaz ezagutzen dena zehazte aldera Bideko Autobiatik iragaten diren ibilgailuak kontatzeko autobia horretan ezarrita dauden gailuen instalazio- eta mantentze-lanak Nafarroako Gobernuko zein departamentuk kontratatu zituen jakitekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Bardeako tiro poligonoa desegiteko egindako kudeaketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, giza papilomaren birusari eta txertatze-kanpainari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Klima aldatetari buruzko azterlana eta proposamena jasoko dituen txosten bat egiteko ponentzia. Osaerari eta funtzionamenduari buruzko arauak (38. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Barañain Auditorioa Fundazioaren garapenerako aurreikusten den dirulaguntzari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Barañain Auditorioa Fundazioaren garapenerako aurreikusten den dirulaguntzari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 22ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Barañaingo Auditorioa Fundazioa bultzatzeko dirulaguntza-aurreikuspenei buruz Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako Aitor Etxarri Pellejero foru-parlamentariak egindako galderari erantzunez, honako hau adierazi du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak:

Barañaingo Udalak, Nafarroako gainerako udalek bezala, kultura-jarduerak antolatzeke hainbat laguntza eska ditzake, horiek kudeatzeko modua dena delakoa izanda ere: kultura-zinegotzigoaren bidez, kultur etxeen bidez, fundazioen bidez, patronatuen bidez...

Urtero, laguntza-deialdiak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen dira; honako hauek, zehazki, udal-programei egiten diete erreferentzia:

1. Artea eta kultura programarako laguntzak
2. Elkarrekin antolatutako kultura-jardueretarako laguntzak

3. Entitate artistiko eta kulturekin egindako hitzarmenak.

Hitzarmen bereziak egiteko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan zenbait entitatearen aldeko kontusail izendunak aurreikusten direnean salbu, Kulturako Zuzendaritza Nagusiak urtero lankidetzeta-hitzarmenak izenpetzen ditu Nafarroako entitate artistiko eta kulturekin. Hitzarmen horien izenpetzea arautzeko deialdi publikoak egiten dira, eta, zehazki, 2007. urtean, 660.400 euroko gastua eragin du.

2008ko aurrekontuaren aurreproiektuan, "Arte eszenikoen sustapena" izeneko kontusaila ere sartu da, beste laguntza-deialdi bat egiteko; dirulaguntza horien bidez, udal-antzoki eta -auditorio-etako antzerki- eta dantza-programazioak lagundu nahi dira bereziki, eta, zehazki, 625.000 euro aurreikusi dira horretarako.

Aipatutako deialdietan aurreikusitako laguntzak lortu ahal izateko prozedura berdina da guztietan; hau da, interesatutako entitateak laguntza-eskaria aurkeztu beharko du, eta, ondoren, deialdiaren oinarrietan zehaztutako kideek osaturiko batzordeak eskariak aztertu eta horiei buruzko proposamena kontseilariari bidaliko dio. Azkenik, kontseilariak erabakiko du laguntzak eman edo ez, dagokion Foru Aginduari jarraiki.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 5ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## **Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer asmo dituen Pío Barojaren museo etnografikoa jartzearen eta haren kokalekuaren inguruan.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak zer asmo dituen Pío Barojaren museo etnografikoa jartzearen eta haren kokalekuaren inguruan.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 22ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako Aitor Etxarri Pellejero foru-parlamentariak galdetu

zuen ea zer aurreikuspen dituen Nafarroako Gobernuak Pío Baroja Etnografia Museoa ezartzeari eta horren kokapenari dagokionez; hori dela-eta, honako hau adierazi du Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak:

Nafarroan ez dago izen hori duen museorik, ez eta izen horretako museo-proiekturik ere.

Beraz, hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan zedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 6an

Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## **Galdera, N-121 errepidea hobetzeko lanak iragartzeko panelak hauteskundeak baino astebete lehenago jarri eta lanak bi hilabete beranduago hasi izanari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du N-121 errepidea hobetzeko lanak iragartzeko panelak hauteskundeak baino astebete lehenago jarri eta lanak bi hilabete beranduago hasi izanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 22ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

“Nafarroa Bai” parlamentu-taldeari atxikitako Maiorga Ramírez Erro foru-parlamentariak galdera bat egin zuen Igantzi eta Endarlatsa arteko N-121-A errepidea hobetzeko lanen hasiera iragartzen

zuten panelak jartzeari buruz; horri dagokionez, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak honako hau adierazi du:

1) Igantzi eta Endarlatsa arteko N-121-A errepidean egiten ari diren lanak Nafarroako Gobernua ari da kudeatzen; lan horiek, hain zuzen, honako bide-zati hau-etan daude banatuta:

- Igantzi – Etxalar (4.150 m)
- Etxalar – Bera (3.720 m)
- Bera – Endarlatsa (2.538 m)

Azken bide-zati hori Nafarroako lurralde-muga adierazten duen Endarla-tsako zubia baino 800 metro lehenago amaitzen da. Beraz, 800 metro horietako lanak nahiz Bidasoa ibaiaren gainean beste zubi bat eraikitzeke lanak Gipuz-koako Foru Aldundiak kudeatzen ditu, bi administrazioek sinatuta duten hitzar-menean oinarrituta; lan horien

finantziarioari dagokionez, berriz, Nafarroak eta Gipuzkoak erdira finantzatzen dute.

Nafarroako Gobernuari kudeatzea dagokion zatian, honako hauek dira hiru bide-zatien administrazio-datak:

	Igantzi – Etxalar	Etxalar – Bera	Bera – Endarlatsa
Kontratazio-espeditentea	176/2006 FA 06/12/15	177/2006 FA 06/12/15	32/2007 FA 07/02/28
Esleipena	28/2007 FA 07/02/28	27/2007 FA 07/02/28	72/2007 FA 07/05/15
Kontratu-sinatzea	07/03/23	07/03/23	07/06/14
Zuinketa-akta	07/04/11	07/04/11	07/07/16
Hasiera-agindua	<b>07/04/12</b>	<b>07/04/12</b>	<b>07/07/17</b>
Amaiera-data	09/03/30	09/03/30	09/06/30
Lanei buruzko kartelak paratzea	07/05/24	07/05/24	07/08/03

Aurreko taulan adierazi den bezala, Igantzi – Etxalar eta Etxalar – Bera bide-zatiko lanak hasteko agindua 2007ko apirilaren 12an eman zen, eta karte-lak 2007ko maiatzaren 24an jarri zituzten. Bera – Endarlatsa bide-zatiari dago-kionez, berriz, hasiera-agindua 2007ko uztailaren 17an eman zen, kontratazio-espeditentea egiten besteak baino bi hilabete eta erdi geroago hasi baitziren (07/02/28an eta ez 06/12/15ean), eta, beraz, kartelak 2007ko abuztuaren 3an jarri zituzten.

Azpitarratu behar da lanak hasteko data kontratu sinatzen den egunak zehazten duela; izan ere, azken hori oinarri hartuta ematen ditu administrazioak lanak benetan egiten hasteko baimena eta agindua. Halaber, data hori erreferen-tziatzen hartzen da, lanen exekuzio-epeak kontatzen hasteko; beraz, kontratista-ren ardura da epe horiek betetzeko beharrezko bitartekoak jartzea.

2) Honako hauek dira, zehazki, N-121-A errepideko hiru bide-zatietako lanen amaiera-datak: 2009ko martxoaren 30a Igantzi – Etxalar eta Etxalar – Bera bide-zatietan, eta 2009ko ekainaren 30a Bera – Endarlatsa bide-zatian. Azken hori, gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatutako Gipuzkoako eta Nafarroako bide-zatietarako aurreikusi den data bera da.

Lanen antolaketa, eta, beraz, horien erritmoa, esleipendunak eskainitako lan-programa oinarri hartuta egiten da; programa, ordea, aldi behin eguneratu egiten da, eta, onartutako epe-aldaketarik izan ezean, lanak amaitzeko kontra-tuan zehaztutako data mantendu behar da.

Obrei dagozkien lanak bi hilabete pasa arte ikusi ez izanak ez du esan nahi lanak egiten hasi ez zirenik; izan ere, badira aurretiko zenbait lan, makinak erabili beharrik ez izan arren, obrei hasiera emateko oso beharrezkoak eta ga-rantzitsuak direnak, esaterako: sarbide zaileko zona basotsu

batean, trazadura guztia berdintzea; jabetza-kentzeak “in situ” egiaztatzea; proiektuan aztertu gabeko zenbait arazo hautematea; soberan dauden materialak botatzeko, zaborte-gietarako sarbideak egitea; landare-lurra metatzeko zonak egokitzea; moztu au-rretik, zuhaitz-espezieen kalitateari buruzko azterketak egitea (proiektuan sartu dira); eta bertako arkeologia aztertzea.

3) Orain arte egin diren errepide-mozketak –68+100 eta 68+400 kilometro-puntuetan (Nafarroako Gobernuak kudeatutako lanen zonan, Bera eta Endarla-tsa artean) seinalegileen bidez txandakako zirkulazioa erregulatzeko egindakoak salbu– Gipuzkoako Foru Aldundiak hurbiltasunagatik eta segurtasuna berma-tzeagatik egindako jardueren ondorio izan dira, bai Nafarroako zatian, bai Gipuzkoakoan; izan ere, zenbait leherketa egin dituzte.

Hala eta guztiz ere, gogoan izan behar da obrak egungo N-121-A errepide-egokitzeko eta hobetzeko direla; izan ere, bide-zati horietan, Iruñearen eta lan hauen hasieraren arteko ardatz guztian aurki daitezkeen ezaugarri geometrikoak eta teknikoak ezarri nahi dira. Laburbilduz, honako hauek dira aipatutako hobekuntza horiek:

- Egungo plataforma zabaltzea
- Kurbadura-erradioak hobetzea
- Ibilgailu motelentzako hirugarren erreia eraikitzea
- Luzetarako profila hobetzea
- Bide-zati batzuetan, saihesbideak egitea
- Loturak eraikitzea

Zona horretako orografia eta topografia (Bidasoa ibaia ardaztat duen ha-ran sakona eta estua), egin beharreko lanen garrantzia (bidezubiak, tunelak, lur-erazketa eta lubeta handiak...) eta

lanek egungo errepidearekin duten hurbilita-suna edo, bestela, bateragarritasuna aintzat hartuz, saihestezina da lanek erre-pidean eta, beraz, zirkulazioan halako eragin handia izatea.

Lanek egungo errepidean eragin zuzena dute (estribuak zulatzea, bidezu-bien pilak, habeak eta harlauzak jartzea), eta, horrez gain, errepidetik hurbil da-goenez, zirkulazio-segurtasuna bermatu behar da (zehazki, errepidearen gai-nean dauden zonetan egindako indusketen materialak erortzea, leherketak, sos-tengatzeko harri-lubetak eraikitzea); beraz, ezaugarri horiek direla-eta, nahitaezkoa da zirkulazioa mugatzeko eta kontrolatzeko neurriak hartzea, lanak egitean segurtasun-berme osoa izateko.

Lanek iraun bitartean, horiek zirkulazioan izan dezaketen eragina handia-goia edo txikiagoa eta askotarikoa izan daiteke:

– Seinalegileak lagundutako txandakako pasabidea, galtzada-estutzea dela-eta.

– Semaforo bidezko txandakako pasabidea.

– Bi noranzkoetako zirkulazio-etenaldiak, denbora-aldi txikietan (minutu batzuk).

– Bi noranzkoetako zirkulazio-etenaldiak, denbora-aldi luzeetan (ordu erdi baino gehiago).

Astero, lanek errepidean izango duten eraginaren programazioa egiten da, eta horri buruzko informazioa Nafarroako Gobernuaren web orrian jartzen da: [www.navarra.es](http://www.navarra.es); halaber, informazioa

eskuratzeko, Nafarroako errepideei bu-ruzko informazio-zerbitzuaren telefonora dei daiteke: 900400100.

Gainera, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren eta toki-entitateen arteko Koordinazio Batzorde bat sortu da, zirkulazio-eraginei buruzko informazioa eta ikuspegiak trukatzeko eta eragin horiek txikiagotzeko.

4) N-121-A errepideko erabiltzaileei aurreko atalean aipatutako neurri horiei guz-tiei buruzko informazioa ematen zaie, horretarako dauden bitarteko guztiak erabi-liz: Internet, prentsa idatzia eta irratia. Neurri horiek disuasorioak izan daitezke, ezinezkoa baita ibilgailu astun guztiak beste ibilbide batzuk erabiltzera behartzea.

Zehazki, N-121-A errepidearen ibilbide alternatibotzat A-15 autobidea sei-naleztatu da; hain zuzen, Noain eta Ezkabako tunelen loturretan, informazio aldagarritzko panelak jarri dira, eta, horrez gain, seinale finkoak ere jarri dira, Ezkabako tunelen sarreran eta Arreko biribilgunean, zehazki. Irungo loturan, halaber, modu berean sei-naleztatu da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192.1. arti-kuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 5ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

## **Galdera, jakiteko ea Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak behar bezalako eta behar adinako segurtasun-neurriak hartuak dituen N-232 errepidearen bikoizketaren ondoriozko behin-behineko erreietan, Castejón-Tutera bide-zatian.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José M<sup>a</sup> Vázquez Royo jaunak galdera egin du jakiteko ea Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak behar bezalako eta behar adinako segurtasun-neurriak hartuak dituen N-232 errepidearen bikoizketaren ondoriozko behin-behineko erreietan, Castejón-Tutera bide-zatian.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna,

Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 31ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Jose M<sup>a</sup> Vázquez Royo foru-parlamentariak galdera bat egin zuen “Castejón-Tutera bide-zatian, N-232 errepidea bitan banatzeko lanak” direla-eta behin-behineko zirkulazio-bideetan hartu diren segurtasun-neurriak buruz; horri dagokionez, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak honako hau adierazi du:

Lanean ari diren zatiko behin-behineko desbideratzearen segurtasun-neurriak: “A-68 Ebroko autobia: Castejón-Tutera bide-zatiari” dagokionez, honako neurri hauek egokiak eta nahikoak dira gure ustez:

- 60 km orduko abiadura-muga.
- Lerro etengabea, desbideratze guztian aurreratzea debekatzeko.
- Abiadura jaisteko sistemak.

– Ibilgailu-ilarak egon daitezkeela adierazten duten seinale bertikalak.

– Gauerako, kaskadan antolatutako argiztapena.

– Norabide-panelak.

– Errepide-alboan, “New Jersey” motako hormigoizko hesiak.

– Lurrez egindako alboko kabailoia.

Berez, lehenengo neurria (60 km/h abiadura-muga) zuzen betetzea nahikoa da istripurik ez gertatzea bermatzeko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 5ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

**Galdera, goi mailako antzerki ikasketei buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du goi mailako antzerki ikasketei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 11ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA****Aurretiko azterketa**

2000. urteko martxoan, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak txosten bat egin zuen Goi-mailako Antzezpen Eskolaren ezaugarriari eta kostuei buruz; gerora, txosten hori Parlamentuan aurkeztu zuten, eta, urte bereko maiatzaren amaiera aldera, Hezkuntza Batzordean gaiari buruz eztabaidatu zuten.

Aurkeztutako datuak kontuan hartuz, eta gaiari buruz eztabaidatu eta gero, ondorioztatu zen Nafarroako ikasleen kopurua ez zela nahikoa era

horretako zentro batek behar bezala funtzionatzeko.

Urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoan jasotzen den bezala, Antzezpen-ikasketei buruzko antolamendua ekainaren 26ko 754/1992 Errege Dekretuan dago araututa; errege-dekretu horretan, zehazki, curriculumaren oinarriko alderdiak zehazten dira, eta, horrez gain, sarrera-proba arautzen da. Halaber, apirilaren 15eko 389/1992 Errege Dekretua kontuan hartu behar du, ikasketa artistikoak ematen dituzten zentroyen gutxieneko baldintzak arautzen dituena, hain zuzen.

Ezaugarri horiek dituen zentro bat irekitzeko, gutxienez, lau ikasturteko bi bide ezarri behar dira, eta, horrez gain, 90 ikaslerentzako lekua izan behar du.

Ikasketa horiek jartzeko kostuak 500 milioi pezetara iritsiko lirateke hasiera batean: 350 milioi, eraikina eraikitze eta hornitzeko, eta, beste 150 milioi, irakaskuntzak, administrazioak eta mantentzeak eragindako gastuak ordaintzeko. Eraikina eraiki eta gero, hurrengo urteetan 150 milioira gutxituko litzateke ikasturte bakoitzaren urteko kostua.

**Egungo egoerara iritsi arte izan duen bilakaera.**

Aipatutako txostena aztertu eta balorazioa egin ondoren, Hezkuntza Departamentuak hitzarmen berezi bat egin zuen Nafarroako Antzerki Eskolarekin, 2002. urtean; hitzarmen hori zela-eta, Hezkuntza Departamentuak 150.000 euroko dirulaguntza eman zion hainbat hezkuntza-programa garatzeko. Hitzarmen hori urtero berritu da, eta une honetan ere indarrean dago; zenbaitetan, gainera, emandako kopurua handitu egin da, KPlaren arabera.

Era berean, Nafarroako Antzerki Eskolak Kultura Departamentuaren dirulaguntza jasotzen du urtero, bere jarduerak kultura-eremuan gara ditzan.

Bestalde, zentroaren finantziazioan zenbait instituziok (esaterako, udalek) eta beste erakunde batzuek ere laguntzen dute.

**Ondorioa.**

Egun bizi dugun egoeran, eta 2000. urtean egindako txostenean zehaztutako baldintzak funtsean ez direla aldatu kontuan hartuta, Hezkuntza Departamentuak ez du beharrezko ikusten Nafarroan Goi-mailako Antzerki Eskola bat sortzea; izan ere, ikasle-kopuruari dagokionez, ez daude goi-mailako zentro batek behar bezala funtzionatzeko ezinbesteko dituen baldintza egokiak.

Bestalde, Antzezpen-ikasketei buruzko antolamendua Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak (maiatzaren 3koa) eragingo dituen lege-garapen berrien mendean dago; beraz, etorkizunean, lege-garapen berrira egokitu beharko da.

Iruñean, 2007ko azaroaren 6an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

**Galdera, Nafarroako enpresa publiko guztien zenbait daturi buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako enpresa publiko guztien zenbait daturi buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 11ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako Maiorga Ramírez Erro foru-parlamentariak honako eskaera hau egin zuen: Gure erkidegoko enpresa publiko guztien izena eta xedea, eta, aldi berean, enpresa publiko bakoitzaren administrazio-kontseiluko kideen zerrenda.

Horri dagokionez, jakinarazi nahi da informazio hori guztia eskuragarri dagoela 2006ko Nafarroako Kontu Orokorretan, bai eta aurreko urte bakoitzari dagokion kontuetan ere; halaber, Nafarroako web orrian ere eskura daiteke.

Iruñean, 2007ko azaroaren 5ean

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria eta bigarren lehendakariordea: Álvaro Miranda Simavilla



## **Galdera, indusketa arkeologikoetarako inbertsio planari eta horrek kultur garapenerako plan berrian izan duen garapenari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du indusketa arkeologikoetarako inbertsio planari eta horrek kultur garapenerako plan berrian izan duen garapenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 22ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako Aitor Etxarri Pellejero foru-parlamentariak galdetu zuen ea zein den arkeologia-indusketetako inbertsio-plana eta ea nola gauzatuko den kultura-garapenerako plan berrian; horri dagokionez, Vianako Printzea Erakundea – Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak honako hau adierazi du:

Arkeologia-atalaren funtzioak orain gutxi zehaztu dira irailaren 3ko 126/2007 Foru Dekretuan, Vianako Printzea Erakundea – Kultura eta Turismo Departamentuaren egitura organikoa arautzen duen foru-dekretuan; zehazki, honako funtzio hauek ditu:

- a) Arkeologia-ondarea legeari dagokionez babestea eta aztarnategiak aztertzea.
- b) Arkeologia-ondarearen informazioa biltzea eta zabaltzea.
- c) Arkeologia-ondarean esku hartzeko proiektuak egitea eta zuzentzea.
- d) Indusketen Urteko Plana eta arkeologiako esku-hartzeen baimenak izapidetzea eta kudeatzea.
- e) Arkeologia-ondasun higiezinak (aztarnategiak) mantentzea eta kudeatzea.
- f) Arkeologia-gaien billegia antolatzea eta kudeatzea.
- g) Nafarroako Arkeologia Inbentarioa egitea.
- h) Kultura-intereseko ondasunen, ondasun inbentariatuaren eta, arkeologia-ondareari dagokio-

nez, tokian-tokian interesa duten ondasunen espedienteak egitea.

i) Indarrean dauden xedapenek agintzen dizkieten edo, helburuak behar bezala betetzeko, derrigorrean egin behar duten beste edozein funtzio betetzea.

Aipatutako funtzioak betetzeaz gain, arkeologiko esku-hartzeen proposamen bat egin da; bertan, indusketa-lanez gain, zundaketak, prospekzioak, jarraipenak, kontserbatze- eta zaharberritze-lanak, labar-arten dokumentazioa, eta dibulgazio-, dokumentazio-, ikerketa- eta hedapen-lanak ere sartzen dira (Foru Legeak zehazten duen bezala).

Horri dagokionez, aurreikusitako proiektuek honako hauek dituzte xede:

- Aztarnategietan arkeologia-zundaketak egitea, kultura-intereseko ondasun izendatzeko. Jarraiera hori Tuterako Merindadean hasiko da, honako leku hauetan, zehazki:
  - Ablitas: Cabezo de la Mesa (I. eta II. Burdin Aroko herria) eta Villar (erromatarren garaiko hiribildua).
  - Bardea: Cabezo de los ladrones (gaztelua) eta Modorra I (I. Burdin Aroko herria).
  - Zarrakastelu: El Prado (erromatar garaiko hiribildua) eta La Encisa (erromatar garaiko hiribildua eta Erdi Aroko herri hutsa).
  - Cascante: Urzante (erromatar garaiko herria) eta Cascantum (erromatar garaiko herria).
  - Cintruénigo: Cerro de los portillos (Erdi Aroko dorrea).
  - Corella: Araciel (erromatar garaiko hiribildua, Erdi Aroko herri hutsa eta dorrea).
  - Cortes: La Atalaya (I. Burdin Aroko nekropolia).
  - Fitero: Tudején (erromatar garaiko hiribildua eta Erdi Aroko gaztelua) eta Baños Viejos (erromatar garaiko bainuetxea).
  - Tuter: El Ramalete (erromatar garaiko hiribildua).
  - Alesbes: San Pedro (erromatar garaiko hiribildua).

2008ko aurrekontuetan, “Arkeologia-kanpaina propioak eta aztarnategien mantentzea” izeneko kontusail bat sartu da, eta, horretarako, 335.000,00 euro bideratuko dira.

– Andelos museo bihurtzea: 2008. urterako, hiriaren aurriak arkitektonikoki sendotzea aurreikusi da, bai eta aztarnategiari balioa ematea ere; horretarako, hain zuzen, seinaleak jarri eta ibilbideak antolatuko dira. Aurrekontuan, “Aztarnategi-museoa” izeneko kontusail bat dago, 300.000,00 eurokoa, eta hori baliatuko da ekimen hori gauzatzeko.

– Arkeologia-ondarea katalogatzen jarraitzea (Nafarroako Arkeologia Inbentarioa, Nafarroako katalogo megalitiko eta babes-eraikinen inbentarioa), arkeologiaren helburu nagusietako bat zer ondare dagoen jakitea eta horrek eraginik izan ez dezan edo ahalik eta eragin txikiena izan dezan zaintzea baita.

“Arkeologia-ondarearen inbentarioa” izeneko kontusaila dago; zehazki, 140.000,00 euro proposatu dira kontusail horretarako.

– Lehiaketa-deialdi bat egitea Nafarroako Arkeologia Ondarearen kudeaketa-zentro bat sortzeko instalazio egokien prestaketa-lanak egiteko; zentro horretan, besteak beste, ondasun arkeologiko higikorren behin betiko gordailua, esku-hartze arkeologikoen artxiboa eta probintziako arkeologia kudeatzeko administrazio-bulegoak egongo dira.

– Arkeologia-lan propioen (Cascajos, Tuterako katedrala eta Iruñeko katedrala) memoriak idaztea eta besteak egindako arkeologia-lanak finantzatzea (azterketa teknikoak eta laborategi-lanak egiteko dirulaguntzak), eta, gero, argitaratzea; halaber, bisita daitezkeen aztarnategien kudeaketa egokia egiten jarraitzea, esaterako: Rada, Andelos eta, laster, Arellano.

Beraz, hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 6an

Vianako Printzea Erakundea – Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## **Galdera, irakaskuntza itundu pribatuko irakasleen lan egoerari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du irakaskuntza itundu pribatuko irakasleen lan egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko azaroaren 9ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Hezkuntza-ituna hezkuntza-administrazioaren eta ikastetxe itunduen arteko kontratu bat da; horri esker, administrazioak konpromisoa hartzen du itundutako ikastetxeak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuak ordaintzeko (soilik, curriculum ofizialean zehazten diren irakaskuntzak). Zerbitzu horien kostua, zehazki, itunaren ekonomia-atalean jaso da.

Ikastetxe itunduaren eta langileen arteko harremana irakaskuntza pribatuko enpresen V. hitzarmen kolektiboan dago jasota (estatu osorako egindakoa); enpresa horiek, hain zuzen, funts publikoekin finantzatzen dira, oso-osorik edo partzialki.

Gainera, Nafarroan, patronatuko eta sindikatu-etako ordezkariak hainbat hitzarmen sinatu dituzte, itundutako irakaskuntza-sektorean hezkuntza-kalitatea eta lan-baldintzak etengabe hobetuz joan daitezkeen. Gero, hitzarmen horiek guztiak Hezkuntza Departamentuak bere gain hartzen ditu. Horietako batean, 2002ko abuztuaren 26koan, irakasleen asteko irakasjarduna 25 orduetik 23 ordura murrizteko egutegia jaso zen, besteak beste; prozesua 2002ko irailean hasiz gero, 2007ko irailean bukatuko zen, itundutako mailetakoa irakasle guzti-aren asteko irakasjarduna 23 irakastorduko jartzean.

Bestalde, jakinarazi behar da irakasleen irakastorduen kontzeptua eta saioaren kontzeptua ez direla berdinak, saioak ordubetekoak, 55 minutukoak edota 50 minutukoak izan baitaitezke; era

berean, irakastorduen kontzeptua ez dator bat ikaslearen zuzeneko irakaskuntza-denborarekin (sare publikoan, batez beste 25 ordu astean, 50 minutuko 30 saiotan banatuta; eta, sare pribatuan, bakoitzak antolatzen duen moduaren arabera).

Hala eta guztiz ere, ikastetxe itunduetan, ikastetxeari berari dagokio curriculum ofiziala irakasteko antolakuntza, eta ez hezkuntza-administrazioari; beraz, itunetan edo kontratuetan ez da adierazten ikastetxeek nola antolatu behar duten, ez eta irakasleek zenbat saio eman behar dituzten eta saio bakoitzak zenbat iraungo duen ere.

Legezko araudia eta irakaskuntza itunduaren sektoreko hezkuntza-kalitatea eta lan-baldintzak etengabe hobetzeko sinatutako hitzarmena behar bezala betetzen direla kontrolatu behar du administrazioak; horrenbestez, irakasjarduna ordaintzeko, irakasleen nominaren ordainketa eskuordetuaz baliatzen da. Beraz, hutsegiterik ezean, guztiz bermatuta dago astean 23 orduko jardunaldi osorako edo zatiturako soldata-tauletan zehaztutako ordainsariak abonatzen direla. Kontrol-sistema bera erabiltzen da 58 urtetik gorako ordutegimurrizketan eta 60 urterekin hartzen den erretiro aurreratuan, bai eta antzinatasunagatik ematen diren aparteko ordainsarrietan, lanerako ezintasunagatik egiten diren ordezkapenetan edota ordaindutako baimenetan ere.

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak Nafarroako ikastetxe pribatu itunduei eman diezazkiokeen fun-

tsei dagokienez, itundutako irakaskuntzen finantziazioan sartzen ez diren proiektuak finantzatzeko izango dira.

Hala eta guztiz ere, hezkuntza-itunei buruzko Arauen Erregelamendua onartzen duen 416/1992 Foru Dekretuak (abenduaren 14koa), honela dio zazpigarren xedapen gehigarrian:

“Itunen erregimen orokorrari kalterik eragin gabe, administrazioak, zehaztuta dauden aurrekontu-esleipenen baitan, eskola-instalazioekin eta - ekipamenduekin lotutako inbertsioen gastuak finantzatzen lagun dezake; horretarako, ordea, ikastetxeek, dagozkien deialdietan zehazten diren baldintzak betez, kalitate oneko hezkuntza-zerbitzua eman edo lankidetzak ekimenak nahiz gizartean antzeko esanahia dutenak bultzatu behar dituzte.”

Nolanahi ere, departamentuak bere aurrekontuan sartzen diren zenbatekoak soilik ezagutzen ditu ziurtasunez, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak sare publikoan nahiz pribatuan jarduera espezifikoak egiteko ematen dituen dirulaguntzak baitira (literatura-ibilbideak, eskola bidaiariak...). Kasuren batean, sare pribatuko ikastetxeren batek jarduera horiek egiteko funtsa jaso du, baina ez orokorrean, helburu nagusia sare publikoa baita.

Iruñean, 2007ko azaroaren 6an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## **Galdera, Enpresa Zientzietako bosgarren maila ikasten ari diren ikasleei beka ez emateari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Enpresa Zientzietako bosgarren maila ikasten ari diren ikasleei beka ez emateari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko azaroaren 9ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Galderak enpresa-zientzietako (Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza) 5. mailako ikasle bati beka bat ez emateari egiten dio erreferentzia. Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza lizentziaturako ikasketa-planak 4 maila ditu; beraz, gure iritziz, ez dio lizentziatura horri erreferentzia zuzena egiten, baizik eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko “Enpresa Zuzendaritza eta Ikasketa Juridikoak” titulu propioari.

2006/2007 ikasturteko beka-deialdian, honela dio:

5. araua: inola ere ez dira beka edo laguntzak emango "Unibertsitateetako titulu propioak" egiteko.

Unibertsitatei buruzko Lege Organikoak baimena ematen die unibertsitatei ofizialak ez diren eta, horrenbestez, horien ondorio berberak ez dituzten titulu propioak irakasteko.

Beka ez emateko arrazoiak, beraz, deialdiko atal hori du oinarri.

Dena den, titulu propio horri dagokionez, berezitat har daiteke; izan ere, titulu horrekin, titulu propioa lortzeaz gain, lizentziatura bikoitza lortzen da. Titulu propio hori lortzeko, ikasleak bi titulu ofizialeetako batean matrikulatu behar du: Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza lizentziaturan edo Zuzenbidea lizentziaturan; eta, gero, sei urteren ondoren ikasketa-plana amaitzean, ikasleak bi titulu lortu ahal izanen ditu.

Horri dagokionez, deialdiaren 5.5. atala azpimarratu behar da; bertan arautzen denez, bigarren

lizentziatura lortzea helburu duten ikasketak egiteko ez da bekarik edo laguntzarik emanen.

Bosgarren mailara iritsi arte, ikasleak beka lor dezake lizentziaturaren ikasketa-planak dituen mailen adina deialditan, matrikulazioa aurrez aipatutako bi titulu horietako batean egiten baita. Beraz, titulu horren ikasketa-planean onartutako aldian lizentziatura bat ikasten duten gainerako ikasleek beka bat lortzeko duten aukera bera ematen zaio. Laugarren maila amaitzean, ikasleak lizentziatura batean eman daitekeen gehieneko beka-kopurua lortu ahal izan du; beraz, beste beka bat ematen bazaio, bigarren titulu bat bere kasa lortzen ari diren ikasleak diskriminatuko dira.

Hori guztia dela-eta, Departamentuak berretsi egiten du Enpresa-zientzietako (Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza) 5. mailako ikasleari beka bat ez emateko hartutako erabakia.

Iruñean, 2007ko azaroaren 6an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## **Galdera, etxebizitza hutsak alokatzeko poltsari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du etxebizitza hutsak alokatzeko poltsari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 22ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako Joseba Eceolaza Latorre jaunak hutsik dauden etxebizitzak alokairu-poltsari buruz galdetu zuen; horri dagokionez, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak honako hau adierazi du:

Urriaren 3an egindako agerraldian aurreratu nuen bezala, alokairu babestuko sistema publiko bat ezarriko dugu; horretarako, hain zuzen, bi bide baliatuko dira: bata, bitartekari bidezko alokairu-poltsa, etxebizitzak uzten laguntzen duten neurri

fiskalak hartuz eta behar bezalako publizitatea eginez; eta, bestea, alokairu-erregimeneko etxebizitza babestuen proiektu berriak, foru-bankuaren lurzoruan eraikiko dituztenak.

Bestalde, ez da beharrezkoa tresna berri bat sortzea Nafarroako etxebizitza hutsen zenbatekoa zehazteko, informazio hori herritar guztien eskura baitago Nafarroako Estatistika Institutuaren web orrian; hain zuzen, horri buruzko informazioa erantsi da.

Azkenik, 1995etik, etxebizitza hutsen errolda bat egiteko aukera aurreikusita dago; zehazki, Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 191. artikuluan zehaztu zen, udal-eskumeneko jardueratzat. Horrez gain, Nafarroan etxebizitzari babes publikoa emateko 8/2004 Foru Legearen 42. artikuluan (ekainaren 24koa), Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan aritzeko aukera adierazi zen. Administrazioen arteko lankidetzaren esparru horretan, Departamentuak eta Iruñeko Udalak jarduera-plan bateratu bat sinatu zuten 2005ean, hirigintza-, lurzoru- eta etxebizitza-gaietarako. Hau da, bi aldeek lankidetzan aritzeko konpromisoa hartu zuten; horrela, datuak eta informazioa trukatzuz, dokumentu bat

sortu nahi dute, Iruñean hutsik dauden etxebizitzak zerrenda bilduko duena. Aurrekoari jarraiki, urte honetako otsailean, Iruñeko Udalak eta Departamentuak Iruñerriko mankomunitatearen laguntza eskatu zuten, Iruñean dauden etxebizitzak kontsumoei buruzko datuak eskuratzeko; baina, orain arte, ez da eskatutako informazioa eskuratu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 7an

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Carlos Esparza Sáez

## **Galdera, jakiteko zein arrazoi direla-eta sartu den Nafarroako Gobernuko webgunean Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenen bilatzaile bat, ebazpenik ez egoteagatik ez dabilena.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du jakiteko zein arrazoi direla-eta sartu den Nafarroako Gobernuko webgunean Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenen bilatzaile bat, ebazpenik ez egoteagatik ez dabilena.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 22ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Ion Erro Armendariz jaunak Nafarroako Auzitegi Administratiboak emandako ebazpenen bilatzaileari buruz egindako galderari erantzunez (Nafarroako Parlamentuko Mahaiak izapidetzeko onartu zuen 2007ko urriaren 15ean), Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak honako hau adierazi du:

Irailaren 25ean egindako agerraldian adierazi nuen bezala, legealdi honetarako, Departamentuaren helburuetako bat Interneteko Nafarroako ataria hobetzea da; hau da, herritarrentzako ulergarriago egin nahi da, eta, horrez gain, kalitate handiagoko beste zerbitzu batzuk jarri nahi dira. Agerraldi hartan, gainera, 2007-2011 aldiko jardura-programa Ganberan aurkezteko aukera izan nuen. Aurreko legealdian, Lexnavarra atarian, indarrean dagoen legedia herritarren esku jarri zen, behar bezala eguneratuta, sarbide askeaz eta doan; horrez gain, proiektu bat jarri zen abian

Nafarroako Auzitegi Administratiboak emandako ebazpenetan jasotako jurisprudentzia ere interesa zuten herritarren eta zuzenbideko eta administraziozko langileen esku jartzeko.

Hain zuzen, proiektua garapen-fase aurreratu-an dago, jada; izan ere, 2008. urtearen hasieran, [www.navarra.es](http://www.navarra.es) atariaren bidez, Nafarroako Auzitegi Administratiboaren web orrietara eta, bereziki, horiek emandako ebazpenetara sartu ahal izanen da.

Une honetan, bilatzailean probak egiten ari dira; horrenbestez, proba horiek egiteko, Auzitegi Administratiboko langileek nahiz Modernizazioaren eta Administrazio Elektronikoaren Zuzendaritzako teknikari batzuek dute bertan sartzeko baimena. Oraingoan, 2002., 2003., 2004. eta 2005. urteetako ebazpenak kargatu dira aplikazioan; baina, laster, 2006. urteari dagozkionak kargatuko dira. 2008 hasieran, berriz, 2007. urtekoak sartuko dira.

Probazko fase honetan, bilaketak bi aukera hauek erabiliz egin daitezke: "testu librea" eta "beste bilaketa batzuk" (gora jotzeko errekurtsioaren zenbakia, ebazpen-zenbakia, data-tarteak eta atala). Paraleloki, une honetan lanean ari dira, bilatzailean sar daitezkeen beste erabilgarritasun osagarri batzuen bidez aukera horiek osatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 8an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

## **Galdera, joan den martxoaren 17ko Iruñeko manifestazioaren deialdiak eta haren antolamenduak eta abarrek sorturiko gastuei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du joan den martxoaren 17ko Iruñeko manifestazioaren deialdiak eta haren antolamenduak eta abarrek sorturiko gastuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 22ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Ion Erro Armendariz jaunak martxoaren 17an Iruñean antolatu zen manifestazioko gastuei buruz egindako galderari erantzunez (Nafarroako Parlamentuko Mahaiak izapidetzeko onartu zuen 2007ko urriaren 15ean), Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak honako hau adierazi du:

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilari naizen aldetik, Ganberan agerraldi bat egin nuen irailaren 25ean 2007-2011 aldirako legealdi-programa azaltzeko; hain zuzen, agerraldi hartan parlamentariei idatziz eman nien dokumentuan agertzen den bezala, aipatutako manifestazioaren antolaketa-gastuak 247.514,60 eurokoak izan ziren. Dokumentu hartan zehaztu zenez, gastu horiek kontabilitateko 01000 G/010001/2269/912100 kontusailaren kontura kargatu ziren.

Bereziki, gastuei dagokienez, atalik handiena ikus-entzunezko sistema muntatzeari eta desmuntatzeari zegokion; izan ere, megafonia eta telebisita-seinalea nahiz laguntza teknikoa 98.467,88 euro kostatu ziren, guztizkoaren %39, zehazki. Hurrengo atala olanek, pankartek, Nafarroako banderek eta inprimatutako eranskailuek osatu zuten, eta, guztira, 55.037,76 euroko gastua eragin zuten, guztizkoaren %22,24. Segidan, publizitate-gastuak daude: 53.879,19 euro (guztizkoaren %21,77). Eta azkenik, azpimarratu beharreko gastuen artean, agertoki-muntaketak, hesiak jartzeak, segurtasun-zona ixteak eta ordena jartzeko langileentzako besokoek eta txalekoek eragindako gastuak aipatu behar dira; izan ere, guztira, 39.012,77 euro kostatu ziren, guztizkoaren %15,76.

Jakina denez, manifestazio-ezaugarriak kontuan hartuta, deialdia irekia eta unibertsala zen; beraz, argi dago ez zegoela ordezkari gisa gonbidatutako "autonomia-erkidegoetako presidenterik edo beste era bateko agintaririk". Hori dela-eta, Iruñera joan zirenek zegozkien desplazamendu-gastuak ordaindu zituzten, manifestazioan parte hartu zuen beste edozein pertsonak bezala.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 8an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

## **Galdera, “Kirol entitateentzako dirulaguntzak” izeneko aurrekontu kontusailari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du “Kirol entitateentzako dirulaguntzak” izeneko aurrekontu kontusailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 22ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako Aitor Etxarri Pellejero foru-parlamentariak “Kirol-elkarteentzako laguntzak” izeneko kontusailaren betetze-mailari buruz egindako galderari dagokionez, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak honako hau adierazi du:

Aitor Etxarri Pellejero jaunak honako hau jakin nahi du Departamentu honek 2007an gastu-aurrekontuetan izan duen “Kirol-elkarteentzako laguntzak” izeneko kontusailari dagokionez:

– 95110-940002-4819-336102 proiektuaren betetze-maila.

– Kontusail horretatik kirol-entitateetara eginiko kontabilitate-mugimendu guztiak, haietako bakoitziari emandako kopuruak zehaztuta.

a) Galdera-gai den kontusailerako 1.356.000 euro esleitu ziren, hasiera batean.

Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren zuzendari-gerenteak ekainaren 12an emandako 362/2007 ebazpenaren bidez, ordea, aurrekontuetan zenbait aldaketa egin zituzten, erakunde bereko kontusailen arteko kreditu-doikuntzak eta -

transferentziak zirela-eta; besteak beste, kontusail horretarako 275.000 euro abonatu ziren.

b) Kontusailean baimendutako gastua honako hau da:

– Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak otsailaren 28an emandako 65/2007 Foru Aginduaren bidez, norgehiagoka bidezko dirulaguntzen deialdia onartu zen, 2007ko beste deialdi espezifikokoago batzuek arautu gabeko kirol-jarduerak antolatze edo horietan parte hartze-ko. (Zenbatekoa: 25.000 euro, aipatutako kontusailaren kargura).

– Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak martxoaren 8an emandako 76/2007 Foru Aginduaren bidez, kirol-klubentzako 2007ko dirulaguntzen deialdia onartu zen, profesionalak ez diren kirolarientzako lehiaketa ofizialetan parte hartze-ko, nazioan nahiz nazioartean. (Zenbatekoa: 1.331.000 euro, aipatutako kontusailaren kontura).

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak urriaren 8an emandako 232/2007 Foru Aginduaren bidez, beste 275.000 euroko gastua baimendu zen; gastu hori, hain zuzen, aurrez 76/2007 Foru Aginduaren bidez baimendutako gastuaren osagarria da, deialdian emandako dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, zehazki.

c) Betetako gastuaren guztizkoa honako hau da:

– Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren zuzendari-gerenteak ekainaren 6an emandako 337/2007 ebazpenaren bidez: 725.923 €.

– Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren zuzendari-gerenteak uztailaren 11n emandako 434/2007 ebazpenaren bidez: 356.797 €.

Betetakoa, guztira: 1.082.720 €.

## A) 337/2007 Ebazpena, ekainaren 6koa:

## AMAITUTAKO JARDUERAK, BAREMOAREN ARABERA BALORATUTA

Entitatea / Lehiaketa / Modalitatea	Taldearen edo kirolariaren izena	Dirulaguntza	Ordainduta
<b>Donibane KE; G-31063548</b>			<b>1.307,00</b>
-Igeriketa hegatsekin: Munduko Kopa	Donibane Kirol Elkartea	186,00	
-Areto futbola: gazteen arteko liga nazionala	Donibane Kirol Elkartea	1.121,00	
<b>Amaya Kirol Hiria; G-31057821</b>			<b>4.023,00</b>
Igeriketa hegatsekin: Munduko Kopa	Amaya	163,00	
-Igeriketa: Espainiako eta erkidegoetako txapelketak	Amaya	3.860,00	
<b>Anaitasuna KE; G-31057961</b>			<b>651,00</b>
-Halterofilia: Espainiako txapelketak	Anaitasuna	549,00	
-Igeriketa: Espainiako txapelketak	Erik García Gracia	102,00	
<b>Askar De Motociclismo KE; G-31550601</b>			<b>956,00</b>
-Espainiako abiadura-txapelketak	Ramiro Mata	956,00	
<b>Badminton Estella kluba; G-31266430</b>			<b>1.731,00</b>
-Badminton: klubena arteko liga nazionala	Badminton Estella	1.731,00	
<b>Beste Iruña AT kluba; G-31283245</b>			<b>1.821,00</b>
-Atletismoa: Espainiako txapelketa	Beste Iruña AT	1.821,00	
<b>Ciclista Iturrotz KE; G-31561418</b>			<b>721,00</b>
-Btt: Kataluniako bira	Ciclista Iturrotz	721,00	
<b>Ciclista Muskaria kluba; G-31434541</b>			<b>288,00</b>
-Pista: Euskadiko eta erkidego arteko txapelketak	Ciclista Muskaria	288,00	
<b>Club Tenis Pamplona KE; G-31058910</b>			<b>2.562,00</b>
-Tenis: ekipoen arteko Espainiako txapelketa	Club Tenis Pamplona	2.562,00	
<b>Navarra KE; G-31188832</b>			<b>3.639,00</b>
-Orientazioa: Espainiako eta erkidegoetako txapelketak	Deportivo Navarra	3.639,00	
<b>ETM Burlada KE; G-31218142</b>			<b>419,00</b>
-Mahai-tenisa: Espainiako txapelketa	ETM Burlada	419,00	
<b>Igantzi Biltoki KE; G-31345085</b>			<b>1.729,00</b>
-BTT: Espainiako eta erkidegoetako txapelketak	Igantzi Biltoki	1.729,00	
<b>Moto Club Navarra; G-31242530</b>			<b>666,00</b>
-Moto-kros: Espainiako eta erkidegoetako txapelketak	Rubén Jiménez Echarri	666,00	
<b>Motor Club Quad-Navarra; G-31836752</b>			<b>1.980,00</b>
-Quad: Espainiako eta erkidegoetako txapelketak	Motor Club Quad-Navarra	1.980,00	
<b>Motoracing Club Estella; G-31564792</b>			<b>3.227,00</b>
-Espainiako eta erkidegoetako abiadura-txapelketak	Motoracing Club Estella	3.227,00	
<b>Navarro De Lucha KE; G-31488471</b>			<b>162,00</b>
-Borroka: junior mailako Espainiako txapelketa; Navarro De Lucha KE		162,00	
<b>Oberena KE; G-31176126</b>			<b>651,00</b>
-Hockey: erkidegoen arteko liga (I – A – B)	Oberena	365,00	
-Pilota erreminta: Euskal Herriko txapelketa	Oberena	103,00	
-Esku pilota: Euskal Herriko Txapelketa	Oberena	57,00	
-Xakea: taldekako Euskadiko txapelketa	Oberena	126,00	
<b>Pamplona Squash Club; G 31799125</b>			<b>438,00</b>
-Open: San Antolin eta Astillero	Pamplona Squash Club	438,00	
<b>Peña La Unica KE; G-31058217</b>			<b>2.029,00</b>
-Errugbia: euskal liga	Peña La Unica	1.522,00	
-Errugbia: erkidego arteko txapelketa	Peña La Unica	507,00	
<b>Señorio de Zuasti golf-kluba; A-31470834</b>			<b>284,00</b>
-Golfa: golf egokituaren opena	Jesús Mª Izura	284,00	
<b>Lagunak KE; G-31131485</b>			<b>1.697,00</b>
-Esku pilota: 3. mailako Espainiako txapelketa	Lagunak	477,00	
-Hockey: I. sektoreko fasea	Lagunak	1.220,00	
<b>Hiruki triatloi-taldea; G-31621113</b>			<b>1.900,00</b>
-Triatloia – Duatloia: Espainiako eta erkidegoetako txapelketak	Hiruki triatloi-taldea	1.900,00	
<b>Nafarroako Unibertsitatea KE; G-31435068</b>			<b>1.037,00</b>
-Boleibol: Euskadiko liga	Nafarroako Unibertsitatea	1.037,00	



## AMAITUTAKO JARDUERAK, MODULUAREN ARABERA BALORATUTA

Entitatea / Lehiaketa / Modalitatea	Taldearen edo kirolariaren izena	Modulua	Ordainduta
<b>Donibane KE; G-31063548</b>			<b>2.175,00</b>
-Pilota erreminta: ohorezko maila	Donibane Kirol Elkartea	2.175,00	
<b>Altsasuko Kirol Elkartea; G-31131691</b>			<b>3.750,00</b>
-Esku pilota: ohorezko maila	Altsasu	3.750,00	
<b>Aralar Mendi KE; G-31059348</b>			<b>1.500,00</b>
-Esku pilota: lehenengo maila	Aralar Mendi	1.500,00	
<b>Baztango Kirol Taldeak; G-31218670</b>			<b>24.000,00</b>
-Eskubaloia: lehenengo maila	Baztango Kirol Taldeak	24.000,00	
<b>Beti-Onak KE; G-31142268</b>			<b>30.000,00</b>
-Eskubaloia: lehenengo maila	Beti-Onak	6.000,00	
-Eskubaloia: lehenengo maila	Beti-Onak	24.000,00	
<b>Tenis Pamplona KE; G-31058910</b>			<b>2.240,00</b>
-Pilota erreminta: ohorezko maila	Club Tennis Pamplona	2.240,00	
<b>Oberena KE; G-31176126</b>			<b>10.500,00</b>
-Pilota erreminta: ohorezko maila	Oberena	3.750,00	
-Pilota erreminta: lehenengo maila	Oberena	1.500,00	
-Esku pilota: ohorezko maila	Oberena	3.750,00	
-Esku pilota: lehenengo maila	Oberena	1.500,00	
<b>Paz de Ziganda KE; G-31251291</b>			<b>3.750,00</b>
-Esku pilota: ohorezko maila	Paz de Ziganda KE	3.750,00	
<b>Pelotazale Huarte KE; G-31508872</b>			<b>3.750,00</b>
-Esku pilota: ohorezko maila	Pelotazale Huarte	3.750,00	
<b>Peña La Unica KE; G-31058217</b>			<b>3.000,00</b>
-Errugbia: lehenengo maila nazionala; Gr.B	Peña La Unica	3.000,00	
<b>River Ega KE; G-31546179</b>			<b>3.000,00</b>
-Futbola: hirugarren maila	River Ega;	3.000,00	
<b>San Igancio KE; G-31459316</b>			<b>24.000,00</b>
-Eskubaloia: lehenengo maila	Loyola - Itxako	24.000,00	
<b>San Miguel KE; G-31184872</b>			<b>3.750,00</b>
-Esku pilota: ohorezko maila	San Miguel	3.750,00	
<b>NUP KE; Q3150012G</b>			<b>15.013,00</b>
-Pilota erreminta: lehenengo maila	NUP	1.500,00	
-Areto-futbola (futbola): zilarrezko maila (lurralde artekoa)	NUP	13.513,00	
<b>Zugarralde PT; G-G-31547631</b>			<b>3.750,00</b>
-Esku pilota: ohorezko maila	Zugarralde PT	3.750,00	
<b>Larraina KE; G-31058894</b>			<b>3.750,00</b>
-Pilota erreminta: ohorezko maila	Larraina	3.750,00	

## AMAITU GABEKO JARDUERAK, MODULUAREN ARABERA BALORATUTA

Entitatea / Lehiaketa / Modalitatea	Taldearen edo kirolariaren izena	Modulua	Ordainduta	Ordaintzeko
<b>Ultzama KE; G-31619976</b>	Superflos Ultzama	3.000,00	2.700,00	300,00
<b>Pamplona Atlético elkarte; G-31150121</b>	Scania Pamplona At.; mutilak.	45.000,00	40.500,00	4.500,00
<b>Pamplona Atlético elkarte; G-31150122</b>	Scania Pamplona At.; neskak	45.000,00	40.500,00	4.500,00
<b>Natación Pamplona elkarte; G-31059306</b>	Natación Pamplona	24.000,00	21.600,00	2.400,00
<b>Arga Kirol Taldea; G-31202146</b>	Arga	30.000,00	20.200,00	9.800,00
<b>Itxako KE; G-31185556</b>	Itxako Navarra KE	90.000,00	81.000,00	9.000,00
<b>Waterpolo Navarra elkarte; G-31-827405</b>	Waterpolo Navarra	50.000,00	45.000,00	5.000,00
<b>Xota FS KE; G-31372220</b>		90.000,00	81.000,00	9.000,00
-Areto-futbola (Futbola): ohorezko maila	MRA Navarra			
<b>Anaitasuna KE; G-31057961</b>		24.000,00	21.600,00	2.400,00
-Gimnasia erritmikoa: Espainiako eta erkidegoetako txapelketak	Anaitasuna			
<b>Anaitasuna KE; G-31057961</b>		50.000,00	45.000,00	5.000,00
-Eskubaloia: ohorezko maila B; Helvetia	Anaitasuna			
<b>Club Atletico Deportivo Irabia; G-31156797</b>		30.000,00	22.755,00	7.245,00
-Beisbola: ohorezko maila	Irabia			
<b>C.D.S.D.C. San Antonio; G-31126717</b>		90.000,00	81.000,00	9.000,00
-Eskubaloia: ohorezko maila	Portland San Antonio			
<b>Maristas saskibaloit-taldea; G-31279136</b>		8.000,00	7.200,00	800,00
-Saskibaloia: 1. maila	Erro-Eugi			

## NAZIOARTEKO JARDUERAK

Entitatea / Lehiaketa / Modalitatea	Taldearen edo kirolariaren izena	Dirulaguntza
<b>Oberena KE; G-31176126</b>		
-Taekwondo: Tolosako nazioarteko Opena	Oberena	297,00
<b>Itxako KE; G-31185556</b>		
-Eskubaloia: EHFren kopa	Itxako	18.000,00
<b>Mushing Txakurlan KE; G-31923667</b>		
-Mushing eta neguko kirolak: munduko eta Europako txapelketak	Iosu Urrutia	1.725,00
<b>C.D.S.D.C. San Antonio; G-31126717</b>		
-Eskubaloia: Europako kopa	Portland San Antonio	24.000,00

## AMAITUTAKO JARDUERAK, BAREMOAREN ARABERA BALORATUTA

Entitatea / Lehiaketa / Modalitatea	Taldearen edo kirolariaren izena	Dirulaguntza	Ordainduta
<b>Ardoi KE; G-31183957</b>			<b>1.617,00</b>
-Saskibaloia: kadeteen Espainiako txapelketa	Valsay - Ardoi	1.617,00	
<b>Badminton Estella; G-31266430</b>			<b>7.675,00</b>
-Badminton: behe-kategorietako zirkuitu nazionala	Badminton Estella	7.675,00	
<b>Beti-Onak KE; G-31142268</b>			<b>1.589,00</b>
-Eskubaloia: Espainiako txapelketa (behe-kategoriak)	Beti-Onak	1.589,00	
<b>Etxabakoitz KE; G-31059777</b>			<b>731,00</b>
-Karate: Espainiako txapelketak (klubak)	Etxabakoitz	731,00	
<b>El Molino KE; G-31476104</b>			<b>2.956,00</b>
-Hainbat: Espainiako txapelketak	El Molino	2.956,00	
<b>Esquí Navarra elkarte; G-31699481</b>			<b>3.839,00</b>
-Alpinoa: Espainiako eta erkidegoetako txapelketak	Esquí Navarra	3.839,00	
<b>ETM Burlada KE; G-31218142</b>			<b>1.117,00</b>
-Mahai-tenisa: Espainiako txapelketa (behe-kategoriak).	ETM Burlada	685,00	
-Mahai-tenisa: nazionaleko bigarren maila eta igoera-fasea	ETM Burlada	432,00	
<b>Isterria KE; G-31176332</b>			<b>2.683,00</b>
-Hainbat kirol egokitu: Espainiako txapelketak	Isterria	2.683,00	
<b>Larraona Claret KE; G-31191976</b>			<b>957,00</b>
-Saskibaloia: gazteen Espainiako txapelketa	Larraona	957,00	
<b>Oberena KE; G-31176126</b>			<b>777,00</b>
-Taekwondo: Espainiako txapelketa (klubak)	Oberena	661,00	
-Jockey eta patinajea: erkidego arteko liga (B)	Oberena	116,00	
<b>Pamplona Squash Club; G 31799125</b>			<b>398,00</b>
-Squash: Espainiako eta erkidegoetako txapelketak	Pamplona Squash Club	398,00	
<b>Peña La Unica KE; G-31058217</b>			<b>728,00</b>
-Errugbia: gazteen Espainiako txapelketa	Peña La Unica	728,00	
<b>San Cernin KE; G-31452790</b>			<b>794,00</b>
-Saskibaloia: infantilen Espainiako txapelketa	San Cernin	794,00	
<b>San Ignacio KE; G-31459316</b>			<b>3.278,00</b>
-Eskubaloia: kadeteen Espainiako txapelketa	San Ignacio	1.491,00	
-Eskubaloia: kadeteen Espainiako txapelketaren azken fasea	Urgon Loyola	1.787,00	
<b>Lagunak KE; G-31131485</b>			<b>7.422,00</b>
-Hockeya eta patinajea: alebinen eta gazteen Lagunak Elkarte Espainiako txapelketa		757,00	
-Eskubaloia: gazteen Espainiako txapelketa	Lagunak Elkarte	739,00	
-Hockey: Espainiako txapelketaren azken fasea (gazteak)	Lagunak Elkarte	1.108,00	
-Hockey: Espainiako txapelketaren azken fasea (alebinak)	Lagunak Elkarte	1.281,00	
-Hockey: Espainiako txapelketaren azken fasea (infantilak)	Lagunak Elkarte	1.643,00	
-Eskubaloia: infantilen Espainiako txapelketa	Lagunak Elkarte	717,00	
-Eskubaloia: kadeteen Espainiako txapelketa	Lagunak Elkarte	1.177,00	
<b>NUP KE; Q3150012G</b>			<b>6.619,00</b>
Waterpolo eta igeriketa: Euskal Herriko ligaren 1. maila	NUP	1.470,00	
-Haibat: unibertsitateen arteko Espainiako txapelketa	NUP	5.149,00	
<b>Waterpolo Navarra elkarte; G-31-827405</b>			<b>2.535,00</b>
-Waterpolo: Euskal Herriko ligaren 1. maila	Waterpolo Navarra	1.669,00	
-Waterpolo: Euskal Herriko liga	Waterpolo Navarra	866,00	

## AMAITUTAKO JARDUERAK: Behin betiko dirulaguntza:

Entitatea / Lehiaketa / Modalitatea	Taldearen edo kirolariaren izena	Modulua	Ordainduta
<b>Donibane KE; G-31063548</b>			<b>4.500,00</b>
-Futbola: lehenengo maila	Donibane Kirol Elkartea	3.000,00	
-Futbola: gazteen arteko liga nazionala	Donibane Kirol Elkartea	1.500,00	
<b>Aluvi3n KE; G-31447113</b>			<b>4.500,00</b>
-Futbola: gazteen arteko liga nazionala	Aluvi3n	1.500,00	
-Futbola: hirugarren maila	Aluvi3n	3.000,00	
<b>Agoizko Kirol Taldea; G-31059470</b>			<b>3.750,00</b>
-Pilota erreminta: ohorezko maila	Agoitz	3.750,00	
<b>Ardoi KE; G-31183957</b>			<b>22.500,00</b>
-Futbola: gazteen arteko liga nazionala	Ardoi	1.500,00	
-Futbola: hirugarren maila	Ardoi	3.000,00	
-Saskibaloia: gizonezkoen 1. maila	Valsay - Ardoi	8.000,00	
-Saskibaloia: emakumezkoen 1. maila	Valsay - Ardoi	10.000,00	
<b>Arenas KE; G-31081557</b>			<b>18.000,00</b>
-Saskibaloia: 1. maila	Arenas	10.000,00	
-Saskibaloia: 1. maila	Arenas	8.000,00	
<b>Burlades KE; G-31174352</b>			<b>3.000,00</b>
-Futbola: hirugarren maila	Burlades	3.000,00	
<b>Txantrea KE; G-31058670</b>			<b>1.500,00</b>
-Futbola: gazteen arteko liga nazionala	Txantrea	1.500,00	
<b>Iruña KE; G-31152432</b>			<b>1.500,00</b>
-Futbola: gazteen arteko liga nazionala	Iruña	1.500,00	
<b>Izarra KE; G-31185648</b>			<b>4.500,00</b>
-Futbola: gazteen arteko liga nazionala	Izarra	1.500,00	
-Futbola: hirugarren maila	Izarra	3.000,00	
<b>Jai Alai de Cabanillas KE; G-31252828</b>			<b>2.000,00</b>
-Zesta punta: ohorezko maila	Jai Alai de Cabanillas	2.000,00	
<b>Larraona Claret KE; G-31191976</b>			<b>4.783,00</b>
-Saskibaloia: 1. maila	NV Consmetal	4.783,00	
<b>Multideporte Peralta; G-31401607</b>			<b>4.500,00</b>
-Futbola: hirugarren maila	Multideporte Peralta	3.000,00	
-Futbola: gazteen arteko liga nazionala	Multideporte Peralta	1.500,00	
<b>Oberena KE; G-31176126</b>			<b>7.500,00</b>
-Hockey eta patinajea: iparraldeko erkidegoen arteko liga nazionala (1. maila, B)	Siena Oberena	3.000,00	
-Futbola: gazteen arteko liga nazionala	Oberena	1.500,00	
-Futbola: hirugarren maila	Oberena	3.000,00	
<b>Oncineda KE; G-31224850</b>			<b>11.511,00</b>
-Saskibaloia: 1. maila	Promociones Legarzia	6.511,00	
-Saskibaloia: 2. maila	Oncineda	5.000,00	
<b>Orvina KE; G-31631732</b>			<b>19.688,00</b>
-Areto-futbola: zilarrezko maila (lurreko artekoa)	Orvina	19.688,00	
<b>Pamplona Kirol Kluba; G-31059371</b>			<b>2.000,00</b>
-Futbola: gazteen ohorezko maila	Iruña	2.000,00	
<b>Irurtzun Pilota Elkartea; G-31442346</b>			<b>3.750,00</b>
-Esku pilota: ohorezko maila	Pelota Irurtzun	3.750,00	
<b>Peña Pelotazale San Sebastián; G-31280670</b>			<b>1.500,00</b>
-Pilota erreminta: lehenengo maila	Peña Pelotazale San Sebastián	1.500,00	

Entitatea / Lehiaketa / Modalitatea	Taldearen edo kirolariaren izena	Modulua	Ordainduta
<b>C.D.S.D.C. San Antonio; G-31126717</b>			<b>6.000,00</b>
-Eskubaloia: lehenengo maila	S.D.C. San Antonio	6.000,00	
<b>San Cernin KE; G-31452790</b>			<b>13.000,00</b>
-Saskibaloia: 1. maila	Viajes Marfil	8.000,00	
-Saskibaloia: 2. maila	Artieda autobusak	5.000,00	
<b>San Javier KE; G-31464852</b>			<b>1.500,00</b>
-Futbola: gazteen arteko liga nazionala	San Javier	1.500,00	
<b>Lagunak KE; G-31131485</b>			<b>94.500,00</b>
-Futbola: superliga	Lagunak	90.000,00	
-Hockeya: iparraldeko erkidegoen arteko liga nazionala (1. maila, B)	Arian Lagunak	3.000,00	
-Gazteen arteko liga nazionala	Lagunak	1.500,00	
<b>NUP KE; Q3150012G</b>			<b>34.000,00</b>
-Saskibaloia: 1. maila	NUP	10.000,00	
-Waterpolo: 1. maila nazionala	NUP	24.000,00	
<b>Zalatambor KE; G-31501075</b>			<b>35.000,00</b>
-Areto-futbola: zilarrezko maila	Perfiles Sintal	35.000,00	

## AMAITUTAKO JARDUERAK: 2. ordainketa

Entitatea / Lehiaketa / Modalitatea	Taldearen edo kirolariaren izena	Modulua	Ordainduta	2. ordainketa
<b>Ultzama KE; G-31619976</b>	Superflos Ultzama	3.000,00	2.700,00	<b>300,00</b>
-Areto-futbola: 1. maila nazionala				
<b>S.C.D.R. Anaitasuna, G-31057961</b>	Helvetia Anaitasuna	50.000,00	45.000,00	<b>5.000,00</b>
-Eskubaloia: ohorezko maila, B				
<b>Baloncesto Maristas KE, G-31279136</b>	Erro-Eugi	8.000,00	7.200,00	<b>800,00</b>
-Saskibaloia: gizonezkoen 1. maila				

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 6an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilaria: María Isabel García Malo

## **Galdera, Nafarroak SPRIN enpresa publikoarekin guztira duen zorrari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroak SPRIN enpresa publikoarekin guztira duen zorrari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 11ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako Maiorga Ramirez Erro foru-parlamentariak honako galdera hau egin zuen:

Zenbatekoa da Nafarroaren zorra, guztira, itzaleko bidesariaren formularen ondoriozko konpro-

misoak eta ISEB enpresa publikoarenak barne direla?

Horri dagokionez, adierazi nahi da "Foru Komunitateko sektore publikoaren" zorrari buruz ari bada (hau da, apirilaren 4ko Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2007 Foru Legearen 2. artikuluan definitzen den bezala), informazio hori eskura duela 2006ko Nafarroako Kontu Orokorretan, bai eta Nafarroako web orrian ere. Gainera, zor publikoaren bilakaerari buruzko informazio osoa jasotzen du; azkena, hain zuzen, irailean bidali zitzaion.

Itzaleko bidesariaren formularen ondoriozko konpromisoak eta ISEB enpresa publikoarenak direla-eta, berriz, adierazi behar da lehenengo kontzeptuak ez duela zordun-izaerarik eta ISEB sozietate publikoak ez duela zorrik.

Iruñean, 2007ko azaroaren 5ean

Bigarren lehendakariordea eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

## **Galdera, jakiteko zenbat aldiz baliatu den Nafarroako Gobernuak babes ofizialeko etxebizitzan izapidetzean lehentasunez erosteko eskubideaz.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Samuel Caro Sádaba jaunak galdera egin du jakiteko zenbat aldiz baliatu den Nafarroako Gobernuak babes ofizialeko etxebizitzan izapidetzean lehentasunez erosteko eskubideaz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko azaroaren 9ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Samuel Caro Sádaba

jaunak galdetu zuen ea Nafarroako Gobernuak etxebizitza babestuen transmisioetan lehentasunez erosteko edo atzera erosteko eskubidea baliatu duen, 2003tik gaurdaino; horri dagokionez, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak honako hau adierazi du:

Aipatutako eskubidea 35 aldiz erabili da: Behin erabili zen 2003an, 5 aldiz 2004an, 7 aldiz 2005ean, 12 aldiz 2006an eta 10 aldiz 2007aren hasieratik gaurdaino.

Lehentasunez erosteko eskubidea erabili den etxebizitzan posta-helbidea ofizio honen eranskinetan agertzen da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 12an

Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Carlos Esparza Sáez

(Oharra: aipatutako eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-07/PES-000114 espedientean, ondoko web helbidean hain zuzen: <http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>)

## **Galdera, enplegu-erregulazioko espedienteak onesteko baldintza objektiboetarako buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du enplegu-erregulazioko espedienteak onesteko baldintza objektiboetarako buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 22ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra - Nafarroako Ezker Batuko Foru Parlamentarien Elkarteari atxikitako foru parlamentari Ion Erro Armendáriz jaunak enplegu-erregulazioko espedienteetarako buruz egindako informazio-eskaerari erantzuteko, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariak adierazten du:

Nafarroako Gobernuak Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren esku-hartzea, izan behar den moduan, Administrazio Prozeduraren Legeko printzipioen arabera eraentzen da. Hauek dira, oro har, printzipioak: gardentasuna, objektibotasuna eta legezketasuna. Printzipio horiek aplikatzearen bidez, partikularrek nahiz enpresa publiko eta pribatuek foru administrazioarekin izan ditzaketan harremanetan babesgabetasun-kasurik ez egotea lortzen da.

Esku artean dugun gaian, enplegu-erregulazioko espedienteen gaian, esku-hartzea indarrean dagoen araudiarekin bat dator objektiboki; gainera, araudiak estatu osorako balio du. Urtarrilaren 19ko 43/1996 Errege Dekretuak onartu egiten du lan-kontratuak aldatzeko, gabetzeko eta iraungitzeko enplegu-erregulazioen eta administrazio-jardueren prozedurei buruzko erregelamendua.

Erregelamendu horren 1. artikulua ezartzen du enplegu-erregulazioko espedienteak irekitzeko ekonomia, teknika, antolamendu edota ekoizpenarekin lotutako arazoak eduki beharko direla.

Galderaren testuan Onena enpresaren kasua aipatzen denez, eta orain gutxi Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordearen aurrean egin dudana agerraldian ikusi ahal izan den moduan, erregulazioko espedienteen kasuan Nafarroako Gobernuak lehentasuna ematen dio enpresetako zuzendaritza-ordezkariei eta langileen artean akordioak bilatzeari, prozesu osoan zehar.

Printzipio hori dela eta, Arriskuen Prebentziora eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiak artekari-tza-lan handia egin behar du. Onenaren kasuan ere hala gertatu zen, eta azkenean aldeak akordio batera iritsi ziren.

Nafarroako Gobernuak egiten duen artekari-tza-lanak garrantzi handia ematen dio elkarriketa eta adostasuna bilatzeari, eta helburua da erregulazioko espedienteen ondorioek ahalik eta lan-kostu txikiena izatea langileentzat, eta, beharrezko baldintzak betetzen diren kasuetan, enpresa-jarduerak ahalik eta berme handienarekin eta ahalik eta enplegu gehienekin iraun ahal izatea.

Esperientziak erakusten digu, departamentuak bideratutako erregulazioko espedienteen kopuru handi batean, enpresaren eta langileen arteko akordioa lortzen dela. Horrenbestez, eta 43/1996 Errege Dekretuko 11. artikulua ezartzen duen moduan, departamentuak nahitaez onartu behar du espediente horiek, iruzur, dolu, hertsapen edo eskubide-abusurik gertatzen ez bada behintzat.

Iruñean, 2007ko azaroaren 12an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria.  
José María Roig Aldasoro

## **Galdera, Nafarroan automobilen sektorerako arau-esparru bat ezartzeko beharrari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Nafarroan automobilen sektorerako arau-esparru bat ezartzeko beharrari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 22ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra - Nafarroako Ezker Batuko Foru Parlamentarien Elkarteari atxikitako foru parlamentari Ion Erro Armendáriz jaunak Nafarroan Automobilgintza Sektorea Arautzeko Esparru bat ezartzeari buruz egindako informazio-eskaerari erantzuteko, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariak adierazten du:

Gutziz bat nator galderaren sarreran egindako baieztapenarekin, hau da, uste dut Nafarroaren ekonomia-, lan- eta gizarte-etorkizuna definitzeko elementu garrantzitsuenetako bat dela politika industrial, edo, zehazkiago esanen nuke, politika enpresariala.

Galderan aipatzen den Sysmo enpresari dago-kionez, orain gutxi Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordearen aurrean egin dudana age-rraldian emandako azalpenei lotzen natzaie.

Galdera automobilgintza-sektorearen esparruari buruzkoa da nagusiki, eta Nafarroako Gobernuaren jardura politikoak berebiziko garrantzia ematen dio sektore horri; Gobernuaren aurreikuspenen arabera, sektore garrantzitsuenetako bat izanen da datozen urteetan foru-komunitateko jardura ekonomikorako.

Izquierda Unida de Navarra – Nafarroako Ezker Batuaren planteamendua, Nafarroan automobilgintza-sektorea arautzeko esparru bat ezartzea, bat dator ICARO Proiektuaren jardura-esparruetako batekin. ICARO Proiektua Nafarroako Gobernuak 2005eko azarotik sektore horretarako bereziki garatzen ari den proiektu bat da.

Proiektuaren helburua da automobilgintza-sektoreko aldaketa-prozesuei aurrea hartzeko eta aurre egiteko baliagarri diren prozesuak, sistemak, metodologiak eta tresnak diseinatzea eta haiekin probak egitea. Azken buruan lortu nahi dena da, behin baliozkotzat jotzen direnean, lurraldeko eragile sektorialek eguneroko jardueretan txertatzea, eta proiektua amaitutakoan ere erabiltzen jarraitzea.

Hala, ICAROk lortu nahi duena da enplegua indartzea eta sektorearen lehiakortasuna handitzea. ICARO aldaketari aurrea hartzen dion proiektua da, eta Nafarroako automobilgintza-enpresetan kalitatezko enplegua indartzeko jarraibide berritzaileak eman nahi ditu.

Nafarroako Gobernuak da ekimen horren buru. Ekimenak Europar Batasunaren finantzazioa du, eta ekonomiaren aldetik automobilgintza-sektore garrantzitsua duten bi eskualdek hartzen dute parte bertan: Portugaleko Palmela-Setúbal eskualdeak eta Italiako Basilicata eskualdeak.

ICARO Proiektuak hiru alderdi nagusitan egin du lan azkeneko hilabeteetan: elkarrizketa sozialean oinarritutako lan-harremanen esparru berri batean, enpresen lehiakortasuna eta enpleguaren iraunkortasuna indartzen duten metodologiaren aplikazioan, eta buruzagitzaren eta lankidetzaren, eskualdeko lehiakortasunaren faktore nagusi gisa.

ICAROrri esker, Nafarroako Automobilgintzarako Plan Estrategikoa egin da. Sektoreko enpresek eta eragile ekonomiko eta sozialek hartu dute parte bertan.

Bestalde, plan estrategikoaren ondorio gisa, Nafarroako automobilgintzaren klusterra martxan jartzea lortu da, eta horrek aukera eman du sektoreko enpresen artean lankidetzaren sare bat osatzeko. Klusterra aurrera eramateko, lan-harremanei buruzko foro iraunkor bat egonen da sektorean.

Nafarroako Enpresarien Konfederazioak (CEN) eta UGT eta CCOO sindikatuek parte hartzen dute foroan, eta foroaren helburua da lan-harremanari buruzko jarreraren koordinazioa eta konbergentzia erraztea, eta gero Nafarroako automobilgintza-sektoreko negoziaketa kolektiboetako itunak sortzeko balio dezaketen akordioak sustatzea. Erro jaunak parlamentuan hainbatetan azaldukoaren ildoarekin bat eginez, Nafarroako Gobernuak uste du eragile ekonomikoek eta sozi-



alek izan behar dutela foro horretako parte-hartzaile eta protagonista bakarrak, kanpoko interferentziarik gabe.

Amaitzeko, adierazi nahi nuke sektoreko enpresa nagusi Volkswagen Nafarroaren egunen egoera oso ona dela. Hitzarmen kolektibo egonkorra du, eta duela gutxi 2008rako ekoizpen-jardueraren programak aurkeztu ditu. Programa horietako

zifrek azken urteetako auto-fabrikaziorik handiena adierazten dute. Alde horretatik, Nafarroako Gobernuak espero du jarduera handitzearen ondorioz Landabeneko plantan enplegua sortzea.

Iruñean, 2007ko azaroaren 12an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria.  
José María Roig Aldasoro

## **Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak Agoitzen industria proiektu berriak sustatzeko eta/edo instalatzen laguntzeko konpromiso politikoa bere gain hartzeko asmorik duen.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak Agoitzen industria proiektu berriak sustatzeko eta/edo instalatzen laguntzeko konpromiso politikoa bere gain hartzeko asmorik duen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 22ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra - Nafarroako Ezker Batuko Foru Parlamentarien Elkarteari atxikitako foru parlamentari Ion Erro Armendáriz jaunak Agoizko Industrialdean proiektu industrial berriak ezartzeari buruz egindako informazio-eskaerari erantzuteko, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariak adierazten du:

Gaia sakon jorratu aurretik, eta galderaren sarreran planteatutako gai batzuei erreferentzia eginez, adierazi nahi nuke enpresako zuzendaritza eta langileen ordezkariak akordiora iritsi ondoren gertatu dela Solano 2000 enpresaren itxiera.

Egindako galderari dagokienez, hau adierazi nahiko nuke:

1- Konpromiso politikoaz haratago, Nafarroako Gobernuak, kontseilari honen bidez, konpromisoa hartzen du Agoizko Industrialdean proiektu industrial berriak ezartzen aktiboki lan egiteko. Konpro-

miso hori hartzearen arrazoia da lagundu egin nahi dela kalitatezko enplegua sortzen duten enpresa-jarduera berriak sortzen etorkizuneko sektore espezializatuetan. Asmoa da egun Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren barruko Agoizko Enplegu Agentzian enplegu-eskatzaile gisa izena emana dutenek lanpostu horiek eskuratu ahal izatea.

Proiektu horiek ezartzeko, lehenik eta behin, beharrezko diren eraikuntza fisikoak egin beharko dira. Horregatik, azken hilabeteetan jarraitutako lan-ildoetako bat izan da Agoizko Udalarekin elkarlanean aritzea, enpresa-ekimen berriak jasotzeko beharrezko lurzorua sortzeko, nahikoa kantidadean eta nahikoa kalitaterekin. Alde horretatik, Agoitzek industria-lurzorua eskaintza dezente handitu duen jarduera bat du duela gutxitik.

2- Galderan aipatzen diren harremanei dagokienez, galderako zentzuan hartuta, ugari izan dira eta esparru asko hartu dituzte. Adibidez, harremanak izan dira udalerraren esparruan, enpresa- eta sindikatu-erakundeekin, eta enpresa jakin batzuekin.

Ulegarria den moduan, egiten ari garen gestioetan, Nafarroako Gobernuak era arduratsuan jarraitzen du lan-ildo hori herrian enpresa-jarduera handiagoa lortzeko asmoz, baina, aldi berean, era diskretuan, lanak denboran jarraitu ahal izateko eta ongi atera dadin. Asmoa da ahalik eta epe laburrenean etorkizuna duten enpresa-proiektu bideragarriak bilakatzea, Agoizko eskualdean enplegua sortzeko gai.

Iruñean, 2007ko azaroaren 12an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria.  
José María Roig Aldasoro

## **Galdera, Iruñeko Udaltzaingoaren ibilgailuen eta uniformeen irudi berriari eta hori Nafarroako udaltzaingoan antolaketari buruzko esparru erregelamenduaren arabera izateari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Iruñeko Udaltzaingoaren ibilgailuen eta uniformeen irudi berriari eta hori Nafarroako udaltzaingoan antolaketari buruzko esparru erregelamenduaren arabera izateari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 22ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Ion Erro Armendáriz jaunak Iruñeko Udaltzaingoaren ibilgailu eta uniformeen itxura berriari buruz egindako galderari erantzuteko –2007ko urriaren 15ean Nafarroako Parlamentuko Mahaiak izapidetzeko onartu zuen galdera–, Lehendakari-tza, Justizia eta Barne kontseilariak hau adierazten du:

Lehenik eta behin, eta galderaren gaia dagokion lege-erreferentzian kokatzeko, azaldu beharra dago Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko Foru Legea indarrean dagoela jada, galdera irakurtzean bestelakorik badirudi ere. 2002ko Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko Foru Legearen testu bategina, berriz, indargabetuta dago.

Alde horretatik, komeni da gogoraraztea Nafarroako segurtasun publikoaren araubide juridikoak –zehazki, Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzko 8/2006 Foru Legeak eta Nafarroako Poliziei buruzko 8/2007 Foru Legeak neurri asko dituztela prebentziorako, zaintzarako, koordinaziorako eta zerbitzu publikorako politika publikoei buruz. Galderan gai horiek ez dira aipatzen, ibilgailuen eta uniformeen itxura aipatzen dira soilik.

Bestalde, komeni da kontuan hartzea 8/1990 Foru Dekretuak onartzen duena, izenak berak adierazten duen moduan, Nafarroako Toki Polizien Antolaketari buruzko “Esparru Erregelamendua” dela. Horregatik, erregelamenduko aurreikuspenek erreferentzia desberdinak dituzte uniformetasunari eta bereizgarriei buruz, eta dagozkien udal-erregelamenduetan definitu behar dira. Testua

irakurtzearekin bakarrik ikus daiteke gaia aurrerago jorratu beharra dagoela udaletan, erregelamenduak biltzen dituen aukeretako batzuk definitzeko, “esparru-erregelamendua” ez delako arau osoa eta zurruna. (Esaterako, udako uniforme eta neguko uniforme egonen direla ezartzen du, baina ez du uniforme horien erabilerarako egutegirik jartzen; txanoa eta txapela onartzen ditu, baina ez du ezartzen non edo nola erabili behar diren, edo zein baldintzatan. Gala-uniformearen erregulazioa udal-erregelamenduetara bideratzen du).

Hartara, esparru-erregelamenduaren arabera, kidego bakoitzeko erregelamenduak, udal-eskumena eta -onarpena duenak, erregulatuko ditu, azken buruan, uniformetasuna eta bereizgarriak –bai eta 8/2007 Foru Legeko 22. eta 24. artikulua ere–. Eta antolaketari buruzko erregelamendu horiek Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko Foru Lege berrira egokitu beharko dute, indarrean jarri eta urtebetera gehienez ere (araua joan den apirilaren 2an argitaratu zen eta hurrengo egunean jarri zen indarrean).

Beraz, alde horretatik, ikus daiteke parlamentari jaunak galderan aipatzen duen arau-urratzea ez dela gertatzen. Batez ere, kontuan hartzen badugu aipatzen diren ikus-elementuek ez dutela eramaileen identitatea nahasten edo ez dutela nahasteko bidea ematen. Alderantziz, badirudi erraz jakin daitekeela agintaritzaren agenteak direla, eta hori da helburua. Halaxe gertatzen da galderan aipatzen diren elementuekin, bai Iruñeko Udaltzaingoaren ibilgailuekin bai eta uniformeekin ere.

Testuinguru horretan, ez da ahaztu behar arauak materialen errealtate berrietara eta zirkulazioan jartzen diren ibilgailuen tamainara egokitzeari ari garela. Esaterako, erregelamenduan ibilgailuak zuriak izan behar dutela jartzeak ez du esan nahi koloretako marrak izan ezin dituztenik, batez ere, marren helburua ibilgailuak errazago ikusi ahal izatea eta istripurik ez gertatzea baldin bada. Ez da beharrezkoa gogoraraztea ibilgailu horiek etengabe daudela zirkulazioan kaleetan, eta batzuetan zirkulazio-ezbeharrak izaten dituztela, haiei ere gerta baitakieke. Gainera, errazago ikusiak izateko elementu horietako batzuk esparru zabalagoetara zabaltzen ari diren hobekuntzak

dira, antzeko zerbitzuak egiten dituzten ibilgailuek ere erabiltzen baitituzte.

Beraz, argi dago kasu horietan araua beti zentzurik zabalenean interpretatu behar dela, batez ere polizien edota jende gehiagoren segurtasunaz ari garenean. Laneko segurtasunari buruzko beste arau eta gomendio batzuk ere badira, eta bete egin behar dira. Eta gauza bera gertatzen da uniformeekin ere.

Bestalde, parlamentariak ongi adierazten duen moduan, Nafarroako Gobernuarena da toki-poliziak koordinatzearen lana, eta lan hori legezkotasunaren barruan egin behar da –8/2006 Foru Legeko 14. artikulua–, eta dagokion udal-autonomiaren onarpena eta errespetua izan behar ditu. Alde horretatik, uniformeen eta baliabide teknikoen homogeneousatzea sustatzea da mandatu legala. Eta mandatu horrek ez du ezartzen ezin daitekeenik desberdintasunik egon udalen artean. Desberdintasunak zenbait arrazoigatik sor daitezke, esa-

terako, toki-polizia bakoitzak lan egiten duen hiri-inguruneagatik, udal bakoitzak aukeratzen duen uniforme-formatu edo –ehunagatik, edota ibilgailuen ezaugarriengatik. Izan ere, udalek autonomia dute eta haien toki-poliziako kideei ibilgailuak eta uniformeak ordaintzeko duten gaitasuna edo nahia desberdina izan daiteke.

Prozesu horretarako eta erabaki horiek hartzeko, udalek –Iruñeko Udaletik hasita– Nafarroako Gobernuaren lankidetzara eta aholkularitzara dute, aipatu dugun moduan, udalen autonomiarako errespetutik, eta mandatua betetzeko erantzukizunetik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengo artikulua betetzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 8an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:  
Javier Caballero Martínez

## **Galdera, Gobernuak Nafarroan lurreko telebista digitalaren eskuragarritasuna bultzatzeko hartuko dituen neurriei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Gobernuak Nafarroan lurreko telebista digitalaren eskuragarritasuna bultzatzeko hartuko dituen neurriei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 22ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Amanda Acebo Suberbiola andreak seinale analogikoa itzaltzeari eta Nafarroako etxeetan lurreko telebista digitala sartzeari buruz egindako informazio-eskaerari erantzuteko, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariak adierazten du:

Nafarroako herritarren % 94,91k baino gehiagok du egun LTD erabiltzeko modua, Espainiako autonomia-erkidegoen artean eskuragarritasun-maila handienetako bat. Estaldura horrek gainditu eta aurreratu egiten ditu Plan Tekniko Nazionalak LTD garatzeko egiten dituen eskakizunak.

1.- Zer neurri eta jarduera ditu aurreikusitako Gobernuak, eta zer aurrekontu, plangintza eta exekuzio-epe ditu, nafarrek duten lurreko telebista digitalaren eskuragarritasuna bultzatzeko?

2007. urtean zehar, LTDren estaldura handitzen jarraitu da Nafarroan, aurreikusitako planari jarraiki, eta joan den urrian estaldura herritarren % 94,91 barne hartzera iritsi zen, 17 telekomunikazio-zentro martxan jarri baitziren.

LTDri buruzko Plan Tekniko Nazionalen aurreikusitako estaldura-faseak aurreratzea da hori; izan ere, LTD jartzeko aurreikusitako egutegia honako hau da:

- biztanleriaren % 88 2008ko uztailaren 31 baino lehen.
- biztanleriaren % 90 2008ko abenduaren 31 baino lehen.
- biztanleriaren % 93 2009ko uztailaren 31 baino lehen.

- biztanleriaren % 96 sozietate kontzesio-hartzaile pribatuetarako, eta biztanleriaren % 98 estatuko edo erkidegoetako erakunde publikoetarako, 2010eko apirilaren 3a baino lehen.

Nafarroako Gobernuaren asmoa da 2008. eta 2009. urteetan zehar estaldura handitzea, eta biztanleriaren % 99,45era iristea; 5.928.865 euroko kostua izanen duela aurreikusten da.

Nolanahi ere, estaldura Plan Tekniko Nazionalen ezarritakoa baino askoz ere handiagoa da.

2.- Zer akordio edo negoziaketa, halakorik baldin badago edo izateko asmorik badago, daude edo aurreikusi dira seinale analogikoaren itzalketak ukituko dituen sektoreekin, hau da, Instalatzailen Federazioarekin, Impulsa elkartearekin, kontsumitzaileen elkarteekin, merkatarien elkarteekin, higiezinetao elkarte eta ordezkariekin, zerikusia duten lanbide-elkargoekin, sustatzaile eta eraikitzaileen elkarteekin...?

Seinale analogikoaren itzalketari eta Lurreko Telebista Digitala (LTD) jartzeari dagokionez, hiru gai daude:

1- Herritar guztiek LTD jaso ahal izatea bermatzen duten azpiegiturak eta ekipamenduak. Horixe da Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak legegintzaldi honetan hartutako eskumenen betebeharra.

2- Administrazioaren zerbitzu interaktiboak garatzea, multiplex datu-kanal autonomikoaren zati bat erabiliz. Hori ez dago departamentuaren eskumenen barruan.

3- Deskodegailuak sustatzea, LTD bultzatzea, seinale berria jaso ahal izateko eraikinetan antenak jartzea, eta promozio-kanpainak egitea. Departamentu honek ez du betebeharririk lan horietan.

3.- Izan al da kudeaketarik edo kontakturik seinale analogikoa itzaltzeak eraginen duen egoera berrira egokitzeko ETBekin dagoen hitzarmena?

Departamentu honek, IKTekin lotuta hartu dituen eskumenen barruan, ez du ETBekin egin den inolako hitzarmen berririk.

Iruñean, 2007ko azaroaren 12an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria.  
José María Roig Aldasoro

## **Galdera, eskariaren kanona izenaz ezagutzen denaren zenbatekoa zehazte aldera Donejakue bideko autobiatik iragaten diren ibilgailuak kontatzeko xedez autobia horretan ezarrita dauden gailuei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du eskariaren kanona izenaz ezagutzen denaren zenbatekoa zehazte aldera Donejakue bideko autobiatik iragaten diren ibilgailuak kontatzeko xedez autobia horretan ezarrita dauden gailuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 31ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egindako galderari erantzuteko, hain zuzen ere, A-12 autobian, Done Jakue bideko autobian, bertatik igarotzen diren ibilgailuak zenbatzeko ezarri diren aparatu-, tresna- eta mekanismo-motei buruz egindako galderari erantzuteko, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak adierazten du:

Autobian neurketarako jarritako 20 azpigunee-tako bakoitzean instalatutako ekipoek informazioa jasotzen dute azpigune horri dagozkion erreietako ibilgailu-zirkulazioari buruz.

Ekipo horietako bakoitzak honako osagai hauek ditu:

- Datu-bilketarako estazioa

Urruneko estazio unibertsal (ERU) bakoitzean instalatu den datu-bilketarako estazioa ADR CS 4000 da, kontzesio-kontratuaren lehiaketara aurkeztutako hobekuntzadun oinarri-eskaintzaren arabera.

Datu-bilketarako estazioa arduratzen da bidearen zirkulazio-parametroak lortzeaz; parametro horien tratamenduaren bidez, ibilgailuen zirkulazio-egoerari buruzko informazioa lortzen dugu.

Sistemak, datuak egoki hartzeaz gain, gehitu eta gero bidali egiten ditu, bai A-12 autobiatiko Kontrol Zentrora, bai Nafarroako Gobernuko Errepide-

en Kontserbaziorako Kontrol Zentrora, prozesatu eta emaitzak interpretatu daitezten.

ADR CS 4000 ERU armairuan dago instalatuta, eta komunikazio-linea baten bidez armairura konektatzen da. Galtzadako sentsoreen seinalea jasotzen du; zoladuraren azpian dauden lotura induktiboko espirak dira sentsoreak.

- Detektagailu elektromagnetikoa

Zirkulazio-datuak lortzeko, lotura induktiboko detektagailu elektromagnetikoak erabiltzen dira. Detektagailu horiek kontatzeko puntua zeharkatzen duten ibilgailu guztiak hautematen dituzte, eta ibilgailu arinak eta astunak bereizten dituzte.

- Zirkuitu itxiko telebista-sistema egiaztapenerako

Nafarroako Gobernuari zirkulazio-datuak lortzeko fidagarritasun osoko sistema bat eskaintzeko konpromisoa betetzeko, bideo-egiaztapenaren eta auditoriaren bidezko sistema bat jarri da. Lortutako datuen kalitatea kontrolatzeko balio du sistemak eta, hala badagokio, neurtzeko ekipoak kalibratzeko.

Kontrol horiek bideokameren eta grabazio digitalen bidez egiten dira, aurrez ezarritako denbortarte batean, eta ordu jakinetan. Sistemaren bidez, ibilgailua ERUtik igarotzean lortutako datua eta grabatutako irudia batera aldera daitezke: prozesu horri bideo-egiaztapena esaten zaio.

Bideo-egiaztapeneko prozesua datu-bilketarako estazio guztietan egin zen kontzesio-kontratuaren hasieran, funtzionamendua baliozkotzeko.

Aurreragoko jarraipena egiteko, bi bideo-egiaztapen mota jarri ziren: programatuak eta programatu gabekak.

Programatutako bideo-egiaztapenak egiteko, astean bi estazioen datuak alderatzen dituen egutegi bat jarraitzen da, eta, beraz, 20 astean sistema osoa berrikusten da.

Programatu gabeko bideo-egiaztapenak astean behin egiten dira Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak aukeratutako zorizko estazioetan.

Orain arteko emaitza guztiak onak izan dira; izan ere, bideo-egiaztapenaren bidez hauteman-

dako akatsen kopurua % 2 baino txikiagoa izan da ibilgailu arinetan, eta % 5 baino txikiagoa ibilgailu astunetan, eta horiek dira datu-bilketarako estazioak emandako datuak aldatzeko kontratuak ezarzen dituen gehieneko balioak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentu-

ko Erregelamenduaren Testu Bateginaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 15ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

## **Galdera, eskariaren kanona izenaz ezagutzen dena zehazte aldera ibilgailuen kontaketa egiteko Bideko Autobian jarri diren gailuak ezarrita dauden kilometro puntuei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du eskariaren kanona izenaz ezagutzen dena zehazte aldera ibilgailuen kontaketa egiteko Bideko Autobian jarri diren gailuak ezarrita dauden kilometro puntuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 31ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egindako galderari erantzuteko, hain zuzen ere, A-12 autobian, Done Jakue bideko autobian, bertatik igarotzen diren ibilgailuak zenbatzeko ezarri diren aparatu, tresna eta mekanismoak zein kilometro-puntutan dauden jakiteko egindako galderari erantzuteko, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak adierazten du:

Lotune bakoitzean jarri diren neurtzeko aparatuak Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren abenduaren 22ko 186/2006 Foru Agindua- ren bidez onartutako kilometro-puntuetan kokatu dira. Beheko taulan ikus daitezke:

Zenbakia	Kokapena	KP
1	Galar 1	6,400
2	Galar 2	7,710
3	Asterain	8,500
4	Erreniega	11,560
5	Legarda	17,612
6	Obanos	19,228
7	Gares	22,300
8	Mañeru	24,808
9	Zirauki	27,120
10	Allotz	28,870
11	Lorka	33,896
12	Deierri	35,748
13	Villatuerta	38,325
14	Lizarra	39,675
15	Aiegi	42,275
16	Azketa	47,275
17	Urbiola	48,735
18	Arronitz	57,495
19	Los Arcos	58,715
20	Viana	67,715

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateginaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 15ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

## **Galdera, eskariaren kanona izenaz ezagutzen dena zehazte aldera Bideko Autobiatik iragaten diren ibilgailuak kontatzeko autobia horretan ezarrita dauden gailuen informazioa lortzeko Nafarroako Gobernuak erabiltzen dituen giza eta gauza-baliabideei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du eskariaren kanona izenaz ezagutzen dena zehazte aldera Bideko Autobiatik iragaten diren ibilgailuak kontatzeko autobia horretan ezarrita dauden gailuen informazioa lortzeko Nafarroako Gobernuak erabiltzen dituen giza eta gauza-baliabideei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 31ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egindako galdera erantzuteko, hain zuzen ere, A-12 autobiatik, Done Jakue bideko autobiatik, igarotzen diren ibilgailuak zenbatzeko erabiliko diren baliabide materialei eta giza baliabideei buruz egindako galderari erantzuteko, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak adierazten du:

Baliabide materialak gaur bertan zehaztu dirazuk egindako beste galdera bati erantzuteko (7-07/PES-00105).

Bestalde, adierazi behar da A-12 autobiako (Done Jakue bideko autobia) kontzesio-hartzaileak txosten batzuk egiten dituela honako maiztasun honekin:

- Zirkulazio-neurketaren asteroko igorpena

Egunero, sozietate kontzesio-hartzaileak tarte bakoitzeko zirkulazio-neurketaren emaitzak biltzen ditu, azpiguneka adierazita, eta orduen eta ibilgailu-moten arabera bilduta. Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari igortzen zaio emaitza posta elektronikoki bidez, hurrengo asteko asteleheneko 12:00ak baino lehen.

- Zirkulazio-neurketaren hileroko igorpena

Hilero, sozietate kontzesio-hartzaileak tarte bakoitzeko zirkulazio-neurketaren emaitzak biltzen dituen txosten bat igortzen dio administrazioari, azpiguneka adierazita, eta egunen eta ibilgailu-moten arabera bilduta.

Txosten hori hurrengo hilabeteko lehenengo astean ematen da.

- Zirkulazio-neurketaren urteroko igorpena

Urtero, sozietate kontzesio-hartzaileak tarte bakoitzeko zirkulazio-neurketaren emaitzak biltzen dituen txosten bat igortzen dio administrazioari, azpiguneka adierazita, eta hilabeteen eta ibilgailu-moten arabera bilduta.

Txosten hori hurrengo urteko urtarrilaren 15a baino lehen ematen da.

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Taryet enpresari igortzen dizkio datu guztiak. Taryet enpresa da "Nafarroako Foru Komunitateko Errepide Sarerako Zirkulazio Edukierari buruzko Planaren Kudeaketa" izeneko kontratuaren esleipenduna, eta datuak aztertzeaz eta egiaztatzeaz arduratzen da.

Horrez gain, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Geocisa enpresaren laguntza teknikoa kontratatu du. Geocisa enpresa errepideetan aditua da, eta A-12 autobiaren (Done Jakue bideko autobia) enpresa kontzesio-hartzailearekiko kontratu-harremana kontrolatzeaz arduratzen da. Laguntza teknikoa emateko, lanaldi osoko teknikari bat egonen da Lizarrako erabilera anitzeko zentroan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateginaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 15ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

## **Galdera, eskariaren kanona izenaz ezagutzen dena zehazte aldera Bideko Autobiatik iragaten diren ibilgailuak kontatzeko autobia horretan ezarritako dauden gailuen luzetarako tarteari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du eskariaren kanona izenaz ezagutzen dena zehazte aldera Bideko Autobiatik iragaten diren ibilgailuak kontatzeko autobia horretan ezarritako dauden gailuen luzetarako tarteari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 31ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egindako galdera parlamentarioari erantzuteko, hain zuzen ere, A-12 autobian, Done Jakue bideko autobian, berta-tik igarotzen diren ibilgailuak zenbatzeko ezarri diren aparatu, tresna eta meka-nismoak zein luzera-tartetan dauden jakiteko egindako galderari erantzuteko, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak adierazten du:

Hauek dira tarte bakoitzean kanonaren ordainketarako erabiliko diren luzera-tarteak, abenduaren 22ko 186/2006 Foru Aginduaren bidez onartuak:

ZENBAKIA	Nondik	Nora	Hasi. KP	Amai. KP
1	Hasiera	Galarko lotunea	6,000	6,770
2	Galarko lotunea	EHAan aurreikusitako lotunea	6,770	7,980
3	EHAan aurreikusitako lotunea	Asteraingo lotunea	7,980	9,410
4	Asteraingo lotunea	Uterga-Legarda lotunea	9,410	14,540
5	Uterga-Legarda lotunea	Obanos/NA601 lotunea	14,540	18,667
6	Obanos/NA601 lotunea	Garesko lotunea (iparraldea)	18,667	21,537
7	Garesko lotunea (iparraldea)	Garesko lotunea (mendebalde)	21,537	23,822
8	Garesko lotunea (mendebalde)	Mañeruko lotunea	23,822	25,727
9	Mañeruko lotunea	Ziraukiko lotunea	25,727	27,866
10	Ziraukiko lotunea	Allozko lotunea	27,866	31,297
11	Allozko lotunea	Deierriko lotunea	31,297	34,436
12	Deierriko lotunea	Villatuertako lotunea	34,436	36,281
13	Villatuertako lotunea	Tafallako errepideko lotunea	36,281	39,088
14	Tafallako errepideko lotunea	Lizarra-San Adrian lotunea	39,088	40,941
15	Lizarra-San Adrian lotunea	Aiegi/NA-132B lotunea	40,941	44,121
16	Aiegi/NA-132B lotunea	Villamayor de Monjardingo lotunea	44,121	47,785
17	Villamayor de Monjardingo lotunea	Alloko lotunea	47,785	51,130
18	Alloko lotunea	NA-129/Los Arcos lotunea	51,130	58,221
19	NA-129/Los Arcos lotunea	Elizagorriko lotunea	58,221	67,161
20	Elizagorriko lotunea	Vianako NA-632 lotunea	67,161	76,421

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateginaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 15ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado



## **Galdera, eskariaren kanona izenaz ezagutzen dena zehazte aldera Bideko Autobiatik iragaten diren ibilgailuak kontatzeko autobia horretan ezarrita dauden gailuen instalazio- eta mantentze-lanak Nafarroako Gobernuko zein departamentuk kontratatu zituen jakitekoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, eskariaren kanona izenaz ezagutzen dena zehazte aldera Bideko Autobiatik iragaten diren ibilgailuak kontatzeko autobia horretan ezarrita dauden gailuen instalazio- eta mantentze-lanak Nafarroako Gobernuko zein departamentuk kontratatu zituen jakitekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 31ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan

José Lizarbe Baztán jaunak egindako galdera erantzuteko, hain zuzen ere, A-12 autobian, Done Jakue bideko autobian, bertatik igarotzen diren ibilgailuak zenbatzeko ezarri diren aparatu, tresna eta mekanismoen instalazioa eta mantenua kontratatu dituen Nafarroako Gobernuko departamentuari buruzko galderari erantzuteko, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak adierazten du:

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak "Iruña-Logroño autobia eraiki, zaindu eta ustiatzeko herri-lanen kontzesioa" izeneko kontratuaren barruko elementu gisa kontratatu ditu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateginaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 15ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak Bardeako tiro poligonoa desegiteko egingako kudeaketei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak Bardeako tiro poligonoa desegiteko egindako kudeaketei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 31ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru-parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galdera parlamentarioari erantzuteko, hain zuzen ere, Done Jakue bideko A-12 autobia-ko mantentze-lanari buruzkoari, hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Lehendabizi.- Hasierako emakida-kontratuaren 59. klausulak ezarritakoaren arabera, aldeek egin beharreko lanak honela banatu ziren:

59.1. Emakida-hartzaileak egin beharreko lanak

Emakida-hartzailea bitartekoz hornituko da eta zaintza-lan hauek oso-osorik beteko ditu:

a) Ohiko zaintza (larrialdiko jarduerak barne) eta tokian tokiko konponketak

b) Konponketa handiak

c) Bidezoruak sendotu

d) Seinale horizontal orokorrak jarri

e) Seinale bertikalak, balizak, langak eta heziak zaindu eta beharrezkoak denean berriz jarri

f) Prebentziozko jarduerak, neguko bidezaintzari begira

g) Seinaleak eta laguntza, istripuak gertatzen direnean

h) Zaintza, neguko bidezaintza zentralizatua barne

i) Administrazioa lagundu, Errepideak Babesteko Foru Legeak dioena ezartzen

j) Laneko Segurtasuna eta Osasuna, Zaintza-ren arloan

#### 59.2 Administrazioak egin beharreko lanak

Administrazioak Iruña-Logroño autobiko zaintza-lanak egingo ditu, Nafarroako Errepide Sare osorako zentralizatuta daudenak; horren arabera:

a) Neguko bidezaintza

b) Tunel-kontrola (kontsumo elektrikoa barne) eta haien instalazio elektromekanikoen mantentze-lana.

c) SOS zutoinetako deiei kasu egiteko zerbitzua

d) Lorezaintza eta ingurumenaren babesa

e) Argiztapena

Bigarrenik.- Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak emandako apirilaren 12ko 296/2005

Foru Aginduaren bidez, "Iruña-Logroño autobia eraiki, zaindu eta ustiatzeko herri-lanen kontzesioa" kontratua aldatzea onartu zuen, eta hau ezartzen da bertan: "Emakida-kontratua abian dela, Administrazioari zegozkiola aurreikusten zen hainbat zaintza-eginkizun kontzesio-hartzaileari eransteko beharra dagoela geratu da agerian. Administrazioaren eta kontzesio-hartzailearen artean, eginkizun horiek betetzean, interferentziarik ez gertatzeko sortu da beharra."

Hirugarrenik.- Kontzesioa bere gain duen sozietateak, kontratuaren 59.1 klausulan aurreikusitakoaz gain, honako zaintza-eginkizun hauek betetzen ditu, hasiera batean Administrazioari zegozkionak:

- Neguko bidezaintza.
- Lorezaintza eta ingurumenaren babesa.
- Argiztapena (Erreniegako tunelak izan ezik).

Laugarrenik.- Zerbitzu horietarako Autovía del Camino SA sozietatearekin sinatu zuenean kontratua, Foru Komunitatearen Administrazioak ez zuen behar adina baliabide ekonomiko, material eta giza arlokoak, zaintza-eginkizunei aurre egiteko, modu eraginkorrean eta bide-segurtasuna bermatuta. Eginkizun horiek A-12 autobiarenean kontzesio-hartzailearen ardurapean jarri ziren; izan ere, Lizarrako Zainketa Zentroarekin sinatutako kontratuan, errepideen erabateko zainketarako, ez zen aipatzen inolako autobiarenean mantentzea, zaintza eta ustiatzeko lanik egin behar zenik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Moldatutako Testuaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 15ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

## Galdera, giza papilomaren birusari eta txertatze-kanpainari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Asun Fernández de Garaialde y Lazcano andreak galdera egin du giza papilomaren birusari eta txertatze-kanpainari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 31ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazcano andreak galdera egin du giza papilomaren birusari

eta txerto-kanpainari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Ez dago, guk dakigula, Nafarroan egindako giza papilomaren birusak eragindako infekzioaren prebalentziari buruzko azterketarik.

Espainiako biztanleriaren artean zenbait azterketa egin dira; Bartzelonako 973 emakume helduen artean egindako ausazko lagin batean, prebalentzia %3koa izan da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Familia Plangintzako Zentroetan 1.178 emakumeri egindako zitologia arruntetan prebalentzia %17koa izan da.

Beste hiru azterketa ere egin dira, eta horietan tarteko prebalentziak aurkitu dira.

Espainiako biztanleriaren artean egindako GPB infekzioaren prebalentzia-azterketak

Egileak	Lagina eta eremua	Kopurua	Teknika diagnostikoa	GPB prebalentzia	Hautemandako arrisku-faktoreak	Mota ohikoenak
Múgica-Van Herckenrode et al, 1992	EAEko emakumeei FPZetan <sup>1</sup> zitologia arrunta	1178	Slot-blot hybridization eta PCR	%17	ED <sup>2</sup>	6, 11, 16, 18
Muñoz et al, 1996	Espainiako 9 probintziatako osasun-zentroetan zitologia arrunta	810	PCR	%4,90	Clamydiak eragindako infekzioa -Maila sozio-ekonomikoa -Sexu-bikotekideen kopurua	ED <sup>2</sup>
De Sanjosé et al, 2003	Ausazko lagina Bartzelonako biztanleriaren artean	973	PCR	%3	Jatorrizko herrialdea -Dibortziatuta egotea -Sexu-bikotekide bat baino gehiago izatea -Kanabisa edo eratorriak erretzea	16, 31, 35
Font al, 2004	Lagin sistematikoa Bartzelonako FPZetan	1383	Hibrido II atzemate eta PCR	%8,3-9,2	Egoera zibila -Sexu-kideak -Paritatea -Emaizta zitologikoa	ED <sup>2</sup>
Puig et al, 2005	Hainbat lagin Cervix-eko minbiziaren diagnostiko goiztiarreko zentroetan eta antisorkuntza zentroetan Zaragozan	298	PCR	%10,6	-Sexu-bikotekide/hilean azken urtean -Sexu-harremanen maiztasuna, baginal/hilean azken urtean	ND <sup>2</sup>
González et al, 2006	Hainbat lagin Alacanteko FPZetan <sup>1</sup>	1011	Hibrido II atzemate eta PCR	%10	-Jatorrizko herrialdea -Sexu-bikotekideen kopurua -Emaizta zitologikoa	16, 18


1 Familia Plangintza Zentro  
2 ED: Ez dago

2.- 1998-2002 bosturteko epean, lepoko minbi-ziaren kasu-kopurua eta intzidentzia-tasa Nafarroan, adina kontuan hartuta:

Cervix-minbizi inbaditzaileko kasu intzidentzeak, adin-taldeka. Tasa gordina (TG) eta Munduko biztanleriarekiko tasa doitua (TD), 100.000 emakumeko, 1998-2002. Nafarroa

	Guzt.	%	0-	5-	10-	15-	20-	25-	30-	35-	40-	45-	50-	55-	60-	65-	70-	75-	80-	85+	TG	TD
Kasu intzidentzeak	86	1,7	0	0	0	0	1	3	7	12	11	7	6	7	10	6	3	7	5	1		
Tasa			0	0	0	0	0,95	2,65	6,21	11,09	11,05	7,9	6,91	9,45	15,65	8,3	4,33	11,6	11,9	2,41	6,2	4,3

## Urteko kasu-kopurua, bost urteka. Nafarroa 1973-2002



3.- 1998-2002 bosturteko epean, lepoko minbi-ziak eragindako hildakoen kopurua eta hilkortasun-tasa Nafarroan, adina kontuan hartuta:

Cervix-minbizi inbaditzaileak eragindako heriotzak, adin-taldeka. Tasa gordina (TG) eta Munduko biztanleriarekiko tasa doitua (TD), 100.000 emakumeko, 1998-2002. Nafarroa

	Guzt.	%	0-	5-	10-	15-	20-	25-	30-	35-	40-	45-	50-	55-	60-	65-	70-	75-	80-	85+	TG	TD
Hildakoak	22	0,9	0	0	0	0	0	0	0	1	3	5	2	0	0	3	1	2	2	3		
Tasa			0	0	0	0	0	0	0	0,92	3,01	5,7	2,30	0	0	4,154	1,44	3,31	4,76	7,23	1,6	0,9

4.- Informazio horren berririk ez dugu. Edonola ere, txertoak duen abantaila osasun-azterketaren aldean hau da: lesio aurreneoplasikoak eta neoplasikoak sortzea eragozten du txertoak, eta osasun-azterketen bidez, ordea, garaiz hautematea baino ez da lortzen.

Nesken txertatze masiboaren kanpaina abian jartzeko Gobernuak dituen arazoak.

5.- 16 eta 18 birus-motek eragindako infekzioak prebenitzeko eta birus horiek eragindako aurreminbiziaren lesioak (CIN 2-CIN 3) prebenitzeko. Txertoaren eraginkortasunari dagokionez, %100 ingurukoa da (92,9-100), aldez aurretik kutsatuta ez dauden pertsonen hiru dosiak jarritz gero.

6.- Gaurdaino frogatuta dago eragiten duen immunitateak, gutxienez, 6 urte irauten duela, eta, horrezaz gain, txertoak oroimen immunologikoa eragiten du, eta, beraz, immunitateak denbora luze irautea espero da.

7.- Oraingoan, ez dirudi txerto-dosi gehigarriak behar direnik.

8.- Txertatze-programaren helburuak hauek dira: 16 eta 18 birus-moten infekzioak eragozteak, birus horiekin lotura duten aurreminbiziaren lesioak eta minbiziaren lesioak eragozteak eta horiek eragindako heriotzak eragozteak.

16 eta 18 birus-moten kontrako txertoa duten emakumeek infekziorik ez izatea; izan ere, Nafarroan atzeman diren minbizien %70, birus-mota horiekin lotura duten aurreminbiziaren lesioak eta minbiziaren lesioak dira.

GPBren infekzioa ezin dugu erauzi, eskuragarri dagoen txertoak ez dituelako infekzioa eragin dezaketen GPB mota guztiak bere baitan hartzen.

16 eta 18 birus-motek eragindako uteroaren lepoko displasiak eragozteak.

16 eta 18 birus-motek eragiten duten uterolepoko minbizia eragozteak, %70 baino gehiago baitira mota horretakoak Nafarroan.

Cervix-minbiziaren intzidentzia eragotzita, horrekin lotutako heriotzak ez izatea lortuko dugu.

9.- Aurtengo txertatze-programaren kostua 1.440.000 eurokoa da, eta hiru dosi jarriko zaizkie programa horretan sartzen diren 6.000 neskeri. Dosi bakoitzak 80 euro balio du, eta txertaketa osoak 240 euro neska bakoitzeko.

10.- Ikastetxeetan ematen ditugun txerto guztietarako gurasoen baimena eskatzen dugu beti. Kasu honetan, emanen dugun txertoa berria denez, baimen-orriarekin batera txertoari buruzko informazioa banatuko dugu.

11.- Ez dago zalantzarik, behar bezalako sexu-hezkuntzak lagun dezakeela sexu-transmisioko gaixotasunak gutxitzen eta/edo prebenitzen. Hala ere, emakumezkoak zein gizonezkoak izan gaitzke GPBren eramaile asintomatikoak, eta GPBren infekzioari dagokionez, preserbatiboa ez da hain eraginkorra ez kutsatzeko, sexu-transmisioko beste gaixotasunetan bezala.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 19an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Klima aldaketari buruzko azterlana eta proposamena jasoko dituen txosten bat egiteko ponentzia**

### *OSAERARI ETA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ARAUAK*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordeak, Erregelamenduko 55.2 artikuluan xedatuarekin bat, Klima aldaketari buruzko azterlana eta proposamena jasoko dituen txosten bat egiteko ponentzia eratzea erabaki zuen 2008ko otsailaren 12an, eta Legebiltzarreko Mahaiari eskatu zion xedatu beharrekoa xeda zezala aipatu ponentziaren osaerari eta funtzionamenduari buruz.

Ponentzia eratu eta lanean has dadin, ondo-koa ERABAKI DA:

**1.** Epe bat ematea, 2008ko otsailaren 29ko 12:00ak bitartekoa, parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak aipatu ponentziako ordezkaria izenda dezan, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordeko kideen artetik, Legebiltzarreko Mahaiari idazki bat zuzenduta.

Idazki horren bidez orobat izendatuko da kasuan kasuko talde edo elkarteko parlamentari bat, beharrezkoa denean ordezkari hura ordezka dezan.

**2.** Behin ordezkariak izendatuta, Mahaiak ponentzia zein egunetan eratu den erabakiko du, eta ponentzia lanean hasiko da.

**3.** Azterlana prestatzeko epea 2008ko azaroaren 14an bukatuko da.

Behin txostena prestatuta, Parlamentuko Mahaiari igorriko zaio, eta hark Batzordeko kideei bidaliko die, txostena eztabaidatu eta bozkatuko den bilkuraren deialdiarekin batera.

**4.** Erabaki hau parlamentu-taldeetako eta foru parlamentarien elkarteetako eledunei helaraztea.

**5.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

## HARPIDETZA ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,40 »	